



Pandemian bizi

COVID-19 garaiko narratibak Ordizian

2024. urtean, Ordizian.

OHARRA: Dokumentuan zehar agertzen diren aipu batzuk gaztelaniaz ziren jatorriz, eta euskarara itzuli dira. Jatorriko hizkuntza euskara zen aipuetan, ahozko hizkuntza eta euskalkia mantentzea erabaki da, irakurleak bizipenen eta iritzien ñabardurak antzeman ditzan.

Argitalpen honetan adierazitako iritziek ez dituzte nahitaez Ordiziako Udalaren ikuspegia islatzen.



Aurkibidea

Hitzaurrea 6

Metodologia 9

Herri narratibak 15

Lehen inpaktua eta konfinamendua

2020ko martxoaren 9tik apirilaren 28ra 18

Kronologia 20

Bizitzak hankaz gora:
Lehen inpaktua 22

Kirioak dantzan:
Beldurraren bizipena 24

Eskelaz bete ziren kaleak:
Heriotzak 26

Egoitzatik zetozen notiziak:
San Jose egoitzako brotea 28

Diru sarrerak kolokan daudenean:
Enplegua eta lana 32

Etxe beteak eta kale hutsak:
Etxeratze agindua 36

Babesten duen herria:
Elkar zaintza eta elkartasuna 38

Bizilagunak inoiz baino gertuago
izan genituenekoa:
Bizilagunen arteko harremanak 40

Jolas txikitan:
Haurtzaroa pandemian 42

Pantaila bidezko besarkadak:
Harreman birtualak 44

Deseskalada eta normaltasun berria

2020ko apirilaren 29tik abenduaren 31ra 46

Kronologia 48

Barneratutako distantziak:
Kalea eta harremanak berreskuratzeko
aukera erlatiboa 52

Normaltasun berrira ezin iritsi:
Bizitza-proiektuei eta
egunerokotasunari eustea 55

Lanak, telelanak eta beste
hamaika komeri:
Enpleguaren egoera 57

Gaixotzea baino gehiago:
Positiboak eta berrogeialdiak 61

Neurtu ezin diren neurriak:
COVID-19a menperatzeko hartutako
neurrien balorazioa 64

Irribarreak ezkutuan:
Maskararen erabilera 67

Txertoen ondorengo epealdia

2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 5era 70

Kronologia 72

Eta txertoak iritsi ziren:
Txertaketa kanpainaren hasiera 76

Txanponaren alde biak:
Gazteak pandemian 80

Herritarrak fokupean:
Komunikabideen jarrera 82

Larrialdiaren amaiera fasea

2021eko urriaren 6tik 2022ko martxoaren 14ra 84

Kronologia 86

Ezinean eutsi zutenak:
Osasun sistemaren egoera 90

Mugak estutzen:
Covid pasaporteak 94

Etendako harremanen itzala:
Distantziak irautea 98

Gu ez gaude ados:
Desadostasunak adieraztea 102

Memoriaren zirrikituak
Gertatutakoa ez dezagun ahaztu 104

Azken gogoetak:

Zer utzi digu pandemia honek? 109

Osasunaz ari gara 110

Zaintza behar dugu 112

Non gelditzen dira
adineko pertsonak? 114

Komunitateari begira 116

Hitzaurrea

COVID19-ak eragin zuen pandemiak geure egunerokotasuna hankaz gora jarri zuen, eta zentzu batean, geure baitan bakarrik utzi gintuen. Bakarrik, konfinamenduak bakardadera isolatu gintuelako. Baina gure herri mugen baitan isolatuta geratu ginen heinean ere, komunitate bezala ere, bakarrik geratu ginen. Ziurrenik, orduan ohartu ginen, guztiak huts egiten duenean elkarren arteko harremanak baino ez genituela aurrera egiteko, geure elkar arteko zaintzak soilik eusten gintuela.

Azken batean, Ordizia deitzen diogun eremu honetan bizi garen komunitateak aurre egin behar izan baitzion bizitzea egokitu zitzaigun egoerari, ahal izan zuen modurik onenean. Alabaina, komunitatea norbanakoez osatzen den talde bezala ulertzen badugu, ulertu behar dugu baita ere, elkar gurutzatu eta uztartzen gaituzten loturak partekatzeak bilakatzen

gaituela komunitate. Alegia, komunitatea eraikitzeke, Ordizian bizitzea, edo lan egitea partekatzen dugunok osatzen dugun talde edo multzo soil horretatik abiatuta, elkar partekatzen ditugun balioekin josi behar dugula lotzen gaituen sarea.

Izan ere, norbanakotik komunitatera jauzi egin genuenean, parez pare jarri ginen, eta horregatik, bizipen pertsonalen aitortza eta errespetutik eraikitzen goaz indibidualismoa gainditzen duen sentipen kolektiboa. Pandemiak, biak ala biak jarri zizkigun parez pare, muturreko egoeren aurrean norberak izandako sentipen eta bizipen intimoenak, baina baita komunitate baten parte bezala, eman beharreko erantzun kolektiboa ere. Kontraesankorrak diruditen bi ertz horien artean lotura bakarra enpatia, errespetua, eta parekidetasunaren aitortza dira.

Zentzu horretan, eskuartean duzun Pandemiaren Bizi lanketa honek, 2022ko martxoan Ordiziako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako konpromiso bati erantzun nahi dio. Hots, COVID-19ak gure herrian utzitako testigantza eta egoerak jasotzeko konpromisoari. Horregatik, pandemiak gure herrian utzitako aztarna ezberdinen herri narratiba eraikitzeke, baina era berean Ordizian bizi garen guztiok osatzen dugun komunitatearen ikuspegi anitz eta poliedrikoa ikusarazteke, ezinbestekoa izan da eragile eta talde ezberdinen ahotsa entzutea. Kolektiboa behar duen kontakizuna, guztion artean eraikitzen dugulako.

Zinez espero dugu, prozesu honetan parte hartu dugunoi gertatu zaigun moduan, bertan jasotzen diren testigantzak irakurtzerakoan albokoaren oinetan jartzeko ariketa burutzeko aukera probestea. Hasiera batean, gugandik urrun senti genitzakeen bizipen horien lekuan jartzen garenean, geure bizipen, sentipen,


aurreiritzi eta gogoetak alde batera utzi, eta albokoa entzuten dugunean, sendaezinak ziruditen zauriak ixten hasten direlako.

Mila esker bihotzez lanketa honetan parte hartzeko zuentzat hain gogorrak izan diren bizipenak gu guztiokin partekatu dituzuen partehartzaile guztiei, eta baita bide hau burutu ahal izateko ezinbesteko bidelagun izan zareten Farapiko kideei ere.

Izan bedi ariketa hau geure komunitatea indartu eta josteko tresna bat, etorkizunean aurre egin beharko diegun erronken aurrean, guztiok egiten dugun ikasketa bat.



Metodologia



Ordiziarrek pandemia nola bizi izan zuten ezagutzeko, **herritarren bizipen eta ikuspegietara gerturatu gara, norbanakoak eta kolektiboak protagonista eginez.** Herritarren ahotsek hartu dute lekua prozesu honetan, ez aditu ikuspegi batetik, baizik eta pandemiak nola eragin dien zentzora ekarriz.

Oroimen ariketa bat ere izan da, gogoratzea eta honi buruz hausnartzea bilatu den neurrian. **Norberaren testigantzak ingurukoarekin gurutzatu eta elikatzea izan dugu helburu,** horrela josten baitira herri narratibak, eta bidean, komunitateak indartu. Horregatik ez ditugu banakako elkarrizketak egin, baizik eta gogoeta saio kolektiboak, non herritar anitzek, bakoitza bere errealitatekin, ingurukoekin konektatu, bizipenak partekatu eta elkarrekin urrutiago pentsatzeko aukerak ireki dituzten. Enpatia, aitortza eta gogoeta partekatua izan ditugu oinarri.

Metodologikoki, **eztabaida taldea edo focus group teknika eta partaidetza dinamiketarik eratorritako baliabideak erabili ditugu.** Konkretuki ondorengo formatua erabili dugu saioetan: aurkezpena eta COVID-19ari lotutako lehen inpaktua gogoratzearekin hasi, denboraren lerroan mugarri nagusiak kokatzea ondoren (norberaren esperientziari testuinguru orokorra emanez), eta amaitzeko, pandemiako gako garrantzitsuenen inguruko hausnarketa. Denbora eman duen taldeetan, itxiera eta balorazio dinamika batekin borobildu ditugu saioak. Salbuespen moduan, saio batean parte hartu ezin izan zuen kide batekin, banakako

elkarrizketa egin dugu.

Taldeak osatzerako orduan, askotariko irizpideak erabili ditugu; batetik, ikuspegi demografiko batetik, ordiziarrek errepresentatuta egoteko modua bilatu da (adina, sexua, jaioterria, ikasketa-maila eta bizilekuari dagokionez), eta aldi berean, COVID-19aren eragin zuzenena jasan duten herritarrei leku berezia eman zaie.

Landa lanean zehar egokitzapenak egin dira perfilen aniztasuna bermatzeko, hau da, faltan ziren perfilen bilaketan berariazko ahalegina egin da. Izan ere, partaidetzarako ohiko oztopoez gain gai mingarri eta konplexuak landu izanak, pertsona egokiak lortzeko prozesua zaildu du. Azkenean, **62 pertsonak hartu dute parte, eta orokorrean, ordiziarrek COVID-19arekiko izandako bizipen eta posizionamenduak maila altu batean islatuta gelditu direla uste dugu.** Hutsune moduan, haur eta nerabeen partaidetza aipatuko genuke, ez baitugu lortu haiekin saiorik egitea; bestetik, emakumeak gain-errepresentatua daudela esan behar dugu, bizipenak partekatzeko prestutasun gehiago adierazi dutelako, eta aldi berean, zaintza eta komunitateari lotutako gaiek leku berezia izan dutenez, esparru hauetan emakumeak aktiboago direlako.

Ondorengo zerrendan azaltzen dira taldeak, eta bakoitzean parte hartu duen pertsona kopurua sexuaren arabera bereiztuta daude. Talde bakoitzaren ondoan laburdura bat

jarri dugu, dokumentu honetan zehar taldea identifikatzeko balioko duena. Izan ere, emaitzak azaltzerako orduan, aipu edo zitei

berebiziko garrantzia eman diegu, beraz, zita bakoitza zein taldetatik jaso dugun adieraziko da.

TALDEA	LABURDURA	PARTAIDE KOPURUA: GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Udal ordezkari politikoak eta zerbitzuetako langileak	UPZ	10	7	3
Egoera zaurgarrian zeuden pertsonak	EZT	9	6	3
Gurasoak	GT	6	4	2
Boluntario sareko kideak	BS	7	4	3
Stop pasaporte covid taldea	SCP	10	8	2
COVID-19aren ondorioz larriki gaixotu, senideren Wbat hil edo osasun zerbitzuetako langileak ¹	GHOe GHOG	4 3	3 2	1 1
Zaintza zerbitzuetako langileak	ZZ	4	4	0
Zaintza zerbitzuko langilea elkarrizketa	ZZE	1	1	0
Merkatari eta ostalariak	MO	8	4	4
PARTAIDEAK GUZTIRA		62	43	19

¹ Partaide bakoitzak aukeratutako hizkuntzan mintzatu ahal izateko, eta aldi berean, elkarrizketa aberatsa sustatzeko, bi taldetan egitea erabaki zen: bata euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz. G edo E letraz bereiztuko dira bi taldeak.

Taldeak osatzerako orduan irizpide hauek erabili izanak ez du esan nahi pertsona hauek rol edo begirada horretatik bakarrik parte hartu dutenik. Izan ere, **personok, gure osotasunetik, bizitzan esparru desberdinak ditugu, eta horrek gure esperientziak aberasten ditu** (adibidez, guraso moduan parte hartutako batek, langile moduan izandako esperientziak ere partekatzea). Hala ere, kasu batzuetan, zitaren zentzua ondo ulertzeko esan zuen pertsonaren ezaugarri konkretu bat jarri dugu (adina, lanpostua...).

Anonimotasuna mantentzea hasieratik hartutako erabaki metodologikoa izan da; batetik, parte hartzen zuten pertsonen saioetan segurtasuna eta konfiantza emateko, eta bestetik, uste dugulako, haien ahotsetan gizarteko ikuspegi anitzak islatzen diren neurrian, edozein sentitu daitekeela jasotakoarekin identifikatuta.

Bizipen eta narratiben jasoketa zabala egin dugu, herritarren eskuzabaltasunari esker informazio ugari izan dugulako dokumentu hau osatzeko. Kontziente gara Ordiziako errealitatea islatzen duten ahots guztiak ez direla barnebilduta egongo, eta agian, irakurleen batek berarentzat garrantzitsuak izan diren elementuren bat faltan sumatuko duela. Bestalde, prozesuan parte hartu dutenei dagokienez, analisi eta txostengintza fasean, edukien aukeraketa bat egin dugu, beraz, ez da saioetan jasotako guzti guztia ekarri dokumentura; **ahots anitzeko herri narratiba osatzeko ezinbestekoak ziren gako edo gaiak jorratu ditugu**. Azkenik, aipatzekoa da parte-hartzaile gehienek saioen balorazio oso positiboa egin dutela, eta asko eskertu dutela pandemiari buruz hitz egiteko konfiantzazko gune seguru bat eduki izana.

Ordiziarrek pandemia nola bizi izan zuten ezagutzeko, herritarren bizipen eta ikuspegietara gerturatu gara, norbanakoak eta kolektiboak protagonista eginez.



Herri narratibak



Herritarren bizipenak, pertsonalak izanagatik, herri oso baten esperientzia kolektiboen isla ere badira, eta horrela adierazi nahi ditugu atal honetan. Horregatik, **hausnarketa taldeetan jasotako zitak dokumentu honen elementu zentrala izango dira**, norbanako eta talde desberdinen hitzak dialogoan jarritz, gurutzatuz, aberastuz edo kontrastean jarritz. Baina bizipen hauek ez dira zerbait isolatua, eta gertatu ziren testuinguruan hartzen dute zentzua. Kokapen hau ahalik eta argien egiteko, COVID-19 garaiko kronologia bat osatu dugu, non mugarri nagusiak izendatzen ditugun.

Kronologia hau, 2020ko martxoaren 9an hasten da, Eusko Jaurlaritzak Gasteiz eta Labastidako ikastetxeak ixtea iragarri zuelarik; amaiera, ordea, 2022ko martxoaren 11n kokatu dugu, osasun zerbitzuek egoera zaugarrian dauden kasuetan bakarrik jarraipena egingo zutela iragarri baitzuten.

Bi urte hauetan gertatutakoa ordenatzeko, lau epealdi bereiztu ditugu:

1. Lehen inpaktua eta konfinamendua. *2020ko martxoaren 9tik apirilaren 28ra.*
2. Deseskalada eta normaltasun berria. *2020ko apirilaren 30tik abenduaren 31ra.*
3. Txertoen ondorengo epealdia. *2021ko urtarrilaren 1tik urriaren 5ra.*
4. Larrialdiaren amaiera fasea. *2021ko urriaren 6tik 2022ko martxoaren 11ra.*

Hurrengo lerroetan, beraz, epealdi bakoitzeko **sarrera bat eta datu-kronologiko esanguratsuenak adieraziko ditugu, herritarren bizipenen atalari bide emateko ondoren**. Azken honetan kokatzen da herri narratiben muina, herritarren testigantzen bitartez epealdi bakoitzean gertatutakoa gaika aletuko baitugu. Epealdi bakoitzean gai nagusi batzuei heldu diegu, baina horrek ez du esan nahi gai horiek epealdi horretan bakarrik izan zirenik garrantzitsuak edo ez zirenik beste gai esanguratsu batzuk egon. Hau da, pandemiari buruz jasotako eduki guztitik, adierazgarrien izan daitezkeen elementuen aukeraketa bat egin dugu.

Lehen inpaktua eta konfinamendua

[2020ko martxoaren 9tik apirilaren 28ra]

Txinatik iristen ziren **pandemiaren lehen berriak harriduratik eta distantziatik jasotzen genituen**. Italiako lehen kutsatuen berri izan genuenean, oraindik ere, sinestezina egiten zitzaigun pasatzen ari zena. Gasteiz eta Labastidan ikastetxeak itxiko zirela iragarri zutenean sentitu genuen COVID-19a gurera iritsi zela. Ezustean harrapatu gintuen pandemiak. Ezustean harrapatu zituen agintariak, ezustean osasun zerbitzuak, ezustean herritarrak.

Martxoaren 14an dekretatu zuen Espainiako Gobernuak alarma egoera, eta besteak beste, derrigorrezko etxeratzea edo konfinamendua ezarri ziren. Eta gure bizitzak hankaz gora jarri zitzaizkigun.

Ezbairik gabe, pandemiak gogoratzean, itxialdiko bizipenak dira indar gehiagorekin berpizten ditugunak. Ezustea, beldurra eta itxialdiaren ondorioak era desberdinean gorpuztu ziren pertsona bakoitzarengan,

baina denok oroitzen dugu lehen egun horietan pandemiak nola astindu zuen gure egunerokotasuna. Lehen inpaktu honek, gainera, eragina izan zuen pandemiaren bilakaeran gutako bakoitzak izan genuen ibilbide emozionalean eta hartutako posizionamenduan.

Esentzial bezala izendatu zirenek lanaldi gogorrei egin behar izan zieten aurre. Denbora luzez etxean gelditu ziren herritar asko. Lasaigarri eta itogarri bilakatu ziren etxeak, etxe txikiak, etxe handiak, jendez betetako etxeak zein bakardadeak hartutakoak.

Ordiziako **kale hutsak eskelaz bete ziren, tristurarekin eta beldurrekin bizitzen ikasi genuen**. Elkar eusteko boluntario sareak antolatu ziren, bizilagunak ezagutu genituen. Etxeratu egin ziren haur eta gazteen zalapartak. Pantaila bitartez maitatzen ikasi genuen.

Kronologia

Martxoak 9
Gasteiz eta Labastidan ikastetxeak itxiko direla iragartzen du Eusko Jaurlaritzak.

Martxoak 11
Munduko Osasun Erakundeak (MOE) **COVID-19a** pandemia izendatzen du.

Martxoak 11
Zuhaizti ixteko agindua ematen du Ordiziako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailetik emandako gomendioa jarraituz.

Martxoak 14
Espainiako gobernuak **alarma egoera** dekretatzen du, konfinamendua ezarriz, zirkulazio askatasuna murriztuz, eta komertzio gehienak, eta hezkuntza eta kultur esparruak itxiz.

Martxoak 12
Udal gobernuak beste alderdiei dei egiten die eta erabakitzen dute **Barrena, Gaztelekua, D'elikatuz, Herri Antzokia, Alotza Haur Eskola, Majori Kiroldegia, Altamira, Frontoia, Dorrea, eta Zuhaizti ixtea**. Jarraipen Mahai bat deitzen da hurrengo egunerako.

Martxoak 18
Berdintasun Arloaren ekimenez, berrogeialdiak iraun bitartean **Emakume migrarien espazioaren jarraipenerako bide telematikoa** aktibatzen da.

Martxoak 18
Ordiziako azoka ospatzen da.

Martxoak 23
Ordizian 70 urtetik gorako edo arrisku taldeetan dauden pertsonentzat **boluntario laguntza zerbitzua** sortzen da.

Martxoak 28
Espainiako Osasun Ministerioaren arabera, **gaixotasunaren gailurra jotzen da**: 2.494 ospitaleratu, 6.984 egiaztatutako kasu. 312 hildako

Apirilak 6
Eusko Jaurlaritzak **azokak debekatu ditu**, eta Ordiziako udalak mantentzeko hautua egiten du. Azoka mantentzeko sinadura bilketa bat abiatzen da, 200 herritarretik gorako atxikimenduarekin.

Martxoan zehar
"Haurrak ere bai" plataforma jaiotzen da, konfinamenduan haurrek bizi dituzten bidegabekeriak salatzen. Geroztik, salaketa publiko, mobilizazio eta proposamen asko egin dituzte pandemia garaian haurren eskubideak ez daitezen urratu.

Apirilak 26
14 urtetik **beherako haurren deskonfinamendua** hasten da, egunean zehar ordubetez kalera irteteko aukera ematen zaie.

Apirilak 9
Ordiziako Udalak **San Jose erresidentziako positibo tasa altuen** kopuruaz informatzeko eta neurriak eskatzeko oharra argitaratzen du.

Bizitzak ***hankaz gora:*** **Lehen inpaktua**

Pandemiaren hasiera COVID-19a Euskal Herrira iristearekin lotzen da; izan ere, nahiz eta aurretiaz beste herrialdeetako datuak eta neurriak azaldu komunikabideetan, gehienek ez zituzten seriotzat hartzen. **Alarma egoera ezartzea izan zen mugarr nagusia, eta egun batetik besterako haustura drastiko bat bezala bizi izan zen.** *Harrigarri* eta *sinesgaitz* hitzekin definitu dute askok. Ordurarteko errealitatearekin edo ulermen patroiekin bat egiten ez zuen zerbait bezala. Hala ere, hasiera honetan egoera berria barneratu eta bertan kokatzerako orduan, pertsona bakoitzak aurretiko sinesmen, bizi-esperientzia edo balore kodeak izan zituen akuilu: osasuna, gaixotasuna edo heriotzarekin dugun harremana edota erakunde publiko edo komunikabideetan dugun sinesmen mailak, besteak beste, asko baldintzatu zuten lehen inpaktu honen inguruan egindako irakurketa.

“

Niretzat inpaktu handia izan zan Pedro Sanchez ikustea telebistan, esaten alarma egoera martxan jartzen zutela eta etxean gelditu behar ginela. Inoiz ez det euki ansiedade atake bat eta ordun sentitu nun zer dan ansiedadea. Itotzen ari nintzala sentitzen nuen, ezin nuelako sinetsi.



SCP

“

Nik kontua, osasun kontu gisa baino, kontu militar bezala bizi izan nuen. Albisteetan militarrek ateratzen ziren, medikuekin, baina militarrek ziren. Beldurgarria zen, ezin nuen sinetsi.



SCP

COVID-19 pandemiak mundua gelditu zuela esan izan da, eta hala izan zen ordiziarrentzat ere. Baina **ez zuen eragin berdina izan denengan, eta pandemia hasi aurretiko egoerak asko baldintzaten du honek izandako inpaktua eta honi lotutako bizipenak.** Batzuentzat, opari bat izan zen etenaldi unibertsala, eta besteentzat, ordea, proiektu pertsonal edo profesionalak moztea eragin zuen eta horrek ondorio latzak ekarri zituen. Adineko pertsona askok, edo arrisku faktoreak zituztenek, beldur handiz jaso zituzten COVID-19ari buruz iristen ziren lehen berriak.

“

Oso pozik bizi nintzen, antzezlan bat ari nintzen sortzen buru-belarri, eta inguruan gertatzen zenetik kanpo. Bat-batean, esan zidaten ezetz, ezin zela etxetik irten, eta nik: “Zer?”



MO

“

Nik beti esaten dut ezin nuela gehiago. Norbaitek, mesedez, mundua geldi zezala eskatzen nuen. Eta entzun egin zidaten; norbaitek gelditu egin zuen. Gelditu izana atsedena fisikoa izan zen, eta atsedena zentzu guztietan.



MO

Kirioak dantzan: **Beldurraren** **bizipena**

Pandemiako lehen egunak emozio batean definituko beharko bagenitu, beldurra izango litzateke. Beldurra, panikoa, kezka. Era desberdinetan gorpuztu zen beldurra pertsona bakoitzarengan, eta denbora pasatu ahala ere, eboluzionatuz joan zen. **Arrisku faktoreak zituzten pertsonak (adina, gaixotasun kronikoak...)** eta **birusarekin kontaktuan egon behar izan zirenek (osasu langileak, kale garbitzaileak...), kutsatzeko arriskua beldur handiz bizi izan zuten kasu gehienetan.** Epealdi honetan pertsona hauen bizitzak bereziki baldintzatuta egon ziren eta harremanak, kasu batzuetan etxe barnekoak ere, mugatuta edo etenda.

Beldurrak ertz asko ditu, maila desberdinetan gainjartzen diren kapak bezala: heriotza, larriki gaixotzea, norbera gaixotuz inguruko zaintza edo etorkizuna zalantzan jartzea (amen kasuan bereziki), edota ingurukoak kutsatzea. Azken hau **ardura eta erruduntasun handiz** bizi izan zuten askok, batez ere etxez etxeko zerbitzuko edo egoitzeko langileek, baina baita adineko pertsonen senideek edota boluntario

“

Niri panikoa ematen zidan lanera joateak. Gogoratzen naiz: kotxean sartu, desinfektatu; lanetik etorri, berriro desinfektatu; etxera etorri eta arropa guztiak kendu; iñor ez besarkatu... Hura zan 'película de terror'. Zer dago kalean?



BS (Osasun zerbitzuetako langilea)

“

Egon nintzen 40 egun etxetik irten gabe, eta gainera inguruko guztiei esaten: "zaindu behar zarete". Baina batzuetan Ertzaina bezela nengoen: "Eskuak garbitu dituzue?" Oso beldurtuta.



GH0e

sareko kideek ere. Emakumeek, inguruko zaintzarekiko ardura barneratuago duten neurrian, ingurukoak ez kutsatzearekiko presio gehiago sentitu zuten, eta honi lotuta, erruduntasun sentimendua.

Pandemian agertu diren beldurrak ez dira soilik gaixotasunari lotutakoak izan. Zenbait kasutan birusak baino **beldur gehiago eragin du momentuko egoera zaurgarriak eta etorkizunarekiko ziurgabetasunak: etxeko bakardadea, lana galtzea, etab.** Hemen ere, klase soziala, generoa edota gizartean dugun posizionamenduari lotutako aldagaiek baldintzatu zuten norbanakoen egoera.

Ezin dugu ahaztu beldurra emozio subjektibo bat dela, eta egon dira **beldurrari uko egiteko gaitasuna izan edo hautu kontzientea** egin dutenak ere. Gazteek, oro har, larritasun gutxiagoz bizi izan dute egoera, defentsak indartsu izateak eta inguruan gaixotzen zirenak sendatzen zirela ikusteak ematen duen lasaitasunetik. COVID 19-arekiko beldurrak gaixotasunaren inguruan dugun kontzepzioarekin ere lotura zuzena du, eta batzuek, osasuna eta gaixotasunetik ikuspegia berrikusi beharko genukeela ere planteatzen dute, gaixotzearekiko beldurrez bizitzea osasuntsua ez dela argudiatuz.

“

Ni asmatika naiz, eta hasieran zioten: "Asmatika bazara, eta birusa hartzen baduzu, hil egingo zera!" Eta beldurra sartu zitzaidan. Ni orain hiltzen banaiz, nire seme-alabekin zer gertatu behar da?



GT

“

Nik argi nuen gure defentsak ondo bagenituen gripea bezala pasatuko genuela. Eta beldurrak defentsak jaisten dizkizu, horregatik saiatzen nintzen kalera irteten, eguzkia hartzen, arnasa hartzen; horiek indartzen zituzten defentsak, birus bati aurre egiteko.



GT

Eskelaz bete *ziren kaleak:* **Heriotzak**

Heriotzak izan dira, zalantza gabe, pandemiaren aurpegirik latzena. Heriotza datuak sozialki jasangaitzak ziren, eta inguruan norbait galdu zutenentzat, ohiko dolu prozesuei askotariko minak gehitu zitzaizkien.

Gizakiak izaki sozialak garen neurrian, ingurukoak behar ditugu, bizitzan eta heriotzean. **Gure gizartean, garrantzitsua da heriotzean akonpainamendua izatea**, badoanarentzat eta geratzen denarentzat, eta baita azken agurra eta dolua ere taldean egitea.

“

Pare bat egun, etxera bidean, bost eskela, sei eskela... Hori bai izan zen inpaktantea.



UPZ

“

Ezin izan genituen gaubeilatu, Covid-a zuen jendearentzat ez zegoelako aukera hori. Gorpuak hartzen zituzten, eta zuzenean erraustera eramaten zituzten. Gero esaten zizuten noiz joan errautsen bila; hala izan zen. Hiletarik ere ezin zen egin. Gero, hileta bateratu bat egin zuten; orduan egin genuen, bai. Nire kasuan, senideak Nafarroatik etorri ziren.



GHOg

COVID-19 garaian hain beharrezkoak diren prozesu sozial eta intimo hauek eten ziren:

senideak ezin izan ziren agurtu, pertsonak bakarrik edo gertuko seniderik gabe hil ziren, gorpuak ezin izan ziren ikusi, ingurukoei birtualki komunikatu behar izan zitzairen heriotzaren berri, hiletak ezin izan ziren egin (edo berandutu ziren), eta senide eta lagunak ezin izan ziren elkartu doluminak emateko eta mina elkarrekin pasatzeko.

Baldintza hauetan inguruko pertsona bat galtzea bereziki latza izan zen, baita hilzorian zeudenekin egotea suertatu zaien osasun eta zaintza zerbitzuetako langileentzat ere. Guztientzat, arrastoa utzi du bizitakoak.

“

Gero kalera irten eta jende guztia: “Sentitzen dut zure amarena”. Baina ezin zenuen besarkatu jendea, beldurrez nengoen. Nire alabari bideo-dei bidez esan nion amona hil zela.



GHOe (Herritarra)

Egoitzatik zetozen notiziak: San Jose egoitzako brotea

Ordiziako San Jose egoitza zentro txiki eta atsegin moduan oroitzen dute ezagutu zutenek, non denek elkar ezagutzen zuten. COVID-19ak gogor astindu zuen bertan eta, gertutik bizi zutenek, errenkada mingarri batean gogoratzen dituzte itxialdiaren hasiera, gaixotasunak eta heriotzak. Jasotako testigantzetan, argi gelditu da, egoitzako kasuan, galera pertsonala izateaz gain, galera kolektiboa ere izan zela.

Hasieran, egoiliarrei bisitak egitea mugatu zen eta, ondoren, bisitak eten ziren. **Senide askok memorian iltzatuta dute azken bisita hura:** larritasuna arnasten zen eta, azken agurra izango zenaren susmoa bazegoen ere, sinesgaitza zirudien hala izan zitekeela. Momentu horretatik aurrera, egoitzako atea erabat itxi ziren, langileek bakarrik zutelarik sartu eta irteteko eskubidea.

“

Denak ezagutzen ginen. Sartu eta: “Que te viene la hija”. Ni joan nintzen azken egunean, muxukatu nun nire ama, aldamenekoa, bestea... Badakit non eseritzen zen bakoitza. Eta gero zerbait egiten zutenean karnabaletan, meriendak... Gu hor egoten ginen. Nire amagatik, eta baita han zeuden guztiengatik pasatu nuen gaizki.



GHOe

“

Dena galderak ziren, langileak falta ziren, langileak Covidarekin kutsatzen hasi ziren... izugarria zen. Hura ez zait sekula ahaztuko. (...) Hemen 12 orduz egiten genuen lan egunero, astelehenetik igandera. Astelehen batean hasi ginen eta nire lehenengo jai-eguna Aste Santuko larunbata izan zen.



ZZ (EULENeko koordinatzailea)

Itxialdian etxeetan zeudenentzat itogarria zen egoitzako senideen berririk ia ez izatea, eta kontaktua bideo-dei batzuetara mugatzea. Gainera, **egoilarrak COVID-19agatik gaixotzen hasi ahala, ezinegona eta kezka asko areagotu ziren.** COVID-19 positibo zirenak erabat isolatu ziren, eta egoitzako langileen bitartez izaten zuten senideek gaixoaren osasun egoeraren berri.

Egoitzako langileentzat, bestalde, abiapuntua bera zaila zen: urteak zeramatzen lan baldintzak hobetzeko borrokan eta grebak egiten. Beste eskakizunen artean, soldata igoera eta ratioen jaitsiera ziren aldarrikapen nagusienak. Ratioen jaitsieraren helburu nagusia egoiliar bakoitzari beharrezko kalitatezko denbora eta zerbitzua eskaintzea zen. COVID-19ak eragindako larritasuna ikusita, greba alde batera utzi zuten, eta egoerari ahalik eta hoberen erantzuteko saiakera egin zuten.

Egoitzako langile guztientzat **lan kargak eta lan erritmoak izugarri igo ziren** eta, langile askok bajak hartzen zituztenez, etengabe kontratazio berriak egin behar izan zituzten. Hasierako ezjakintasuna eta kaosaren erdian, denek ahal zutena eman zuten.

“

Isolamendua oso bortitza izan zen. Eta haiekin ezin egotea. Gu, gauean, norbait gaizki jartzen denean, berarekin egoten saiatzen gara, ukitzen. Familia etortzen denean, orduan haiek egiten dute lan hori. Baina orduan ez zen halakorik onartzen.



ZZE (San Jose egoitzako langilea)

“

Sistema zaharkituta geratu da, eta badakite. Ezin da adinekoekin lan egin fabrika batean bazeunde bezala; haiek ez dira piezak, eta gu ez gara makinak. Zerbitzuari kalitatea eman behar zaio, langile gehiagorekin, pertsona bakoitzari denbora gehiago eskaini ahal izateko.



ZZE (San Jose egoitzako langilea)

Hasiera batean, higie ne eta segurtasun neurrien inguruan ezezagutza handia zegoen, eta COVID 19arekin esperientzia handitu ahala, ekipamenduak eta neurriak egokitzen joan baziren ere, lehen egun hauetan, oso oinarrizkoak ziren. Esate baterako, segurtasunerako maskaren erabileraren garrantzia ez zegoen argi, eta maskaren eskaria eskaintza baino askoz handiagoa zen. Testuinguru honetan, langileentzat oso gogorra izan zen haien burua eta egoiliarrak babesteko segurtasun baliabide egokirik gabe lan egitea.

Egoiliarrekin kontaktu zuzena zuten langileentzat bereziki bortitza izan zen: pertsonekin harreman estua zuten, eta isolamenduak zekartzan ondorio larriak ikusteaz gain, heriotz ugariren testigu izan ziren. Gainera, langile batzuek ez zituzten ulertzen Osakidetzako protokoloen bitartez ezartzen ziren muturreko neurriak, eta bereziki gogorra egin zitzairen hauek aplikatu behar izatea.

Agerikoa izan zen langile hauek funtzio profesionalak gainditzen zuten ardurak eta zaintza lanak hartu zituzten haien gain. Egoera honek **langile hauen bizitza pertsonalean ere inpaktu latza izan zuen**: batzuk haien senideengandik isolatu ziren; beste batzuek, lan-baldintza gogorrak eta gehiegizko lan kargaren ondorio psikologikoak pairatu zituzten; eta egoiliarrak bakardadean hiltzen uztearen sentsazioarekin bizi behar izan

“

Ikusi ezin izan zituenarentzat oso gogorra izan zen. Batzuei ez zien iristeko astirik eman.



ZZ

“

Ez dakit nola eskertu jende honi! Eskertza handia egindako lanagatik. Langile batek esan zidan oso gaizki ari zala pasatzen, ikusten hainbeste jende joaten bakarrik.



GHOe

“

Arrastoa utzi digu, batez ere haiekin egon ezin izanak. Bizitzak aurrera egiten du. Badirudi ez zarela gogoratzen, eta bat-batean une horren bizipenak datozkizu.



GHOg

zuten besteek. Zentzu honetan, aipagarria da, egoiliarren senideak oso kontziente direla langile hauek eskaintako zaintza dedikazio izugarriaz, eta honekiko eskertza handia adierazten dutela.

San Jose egoitzan heriotza-tasa bereziki altua izan zen. Herri mailan zein udal-ordezkariek kezka eta minez oroitzen dute epealdi hau, baina gertukoentzat izan zen, zalantza gabe, zailena: pandemia osoko unerik txarrenak izan ziren heriotza hauek, galera pertsonalari testuinguruak baldintzatutako sufrimendua gehitu baitzitzaion.

Momentuko egoeraren arabera, pertsona batzuek senidea agurtzeko aukera izan zuten eta beste batzuek ez. Agurtzeko aukera izan ez zutenentzat, aita edo ama bakarrik hil zela jakiteak sufrimendua eta erruduntasuna ekarri zituen. **Bizipen honek asko zaildu zituen dolu prozesuak eta denboran irauten duten zauriak utzi dizkie senideei.**

San Jose egoitzan bizitakoak adinekoen zaintzaren eta egoitza ereduaren inguruko gogoeta mahai-gaineratu zuen. Herritar batzuek adineko pertsonen zaintza integrala eta duintasuna zentrora ekartzea aldarrikatzen dute, eta artatze zerbitzu eta baliabideak honi erantzutea (ratioak murriztuz edo irisgarritasuna hobetuz, besteak beste). Zentzu honetan, aipagarria da COVID 19-aren ondorioz San Jose egoitzan horrelako krisiei hobeto erantzuteko egokitzapenak egin direla.

“

Psikologikoki oso gogorra izan zen, ia guztiek laguntza psikologikoa eskatu behar izan dugu. Une batean ez nuen ulertzen zer egiten ari nintzen.



ZZE (San Jose egoitzako langilea)

“

Apirilaren 8an egin zieten proba egoiliar guztiei, eta 35ek eman zuten positibo. Eskuak burura eramane genituen, egun hura beldurgarria izan zen.



ZZ (Kabia-San Jose egoitzako egoitzaburua)

Diru sarrerak **kolokan daudenean:** **Enplegua eta lana**

Enplegua gure gizartea egituratzen duen ardatz nagusietako bat den neurrian, pandemia hasieran ere, pertsonen bizitzetan eta bizipenetan inpaktu handia izan zuen aldagaia izan zen: batzuek lana galdu zuten, beste batzuentzat lana izugarri areagotu zen (ezinbestekoak edo esentzialak), askok lan etenaldi bat izan zuten (diru iturriak mantenduz ala murriztuz) edo telelanera pasatu ziren. **Enplegua galdu edo mantentzeak, edo enpleguari lotutako egoerek, erabat baldintzatu zituzten itxialdiarekiko bizipenak,** eta baita pandemiarekiko ikuspegia ere.

“

Ni lan bila ari nintzen, baina poliziak ez zizun etxetik irteten uzten, eta nik lana bilatzera irten beharra neukan.



EZT

“

Pertsiana itxi behar izan zuen horietakoa izan nintzen. Badakizu ordaindu beharreko gastuak etorriko zaizkizula, eta zure buruari esaten diozu: “Nondik aterako dut (dirua)?” Ordainketak hor daude, eta ordainketa asko dira. Izan ere, funtzionatzen ari zara, gaizki. Baina funtzionatzen ez baduzu... Itotzen hasi nintzen. Nondik aterako dut dirua?



MO

Pandemia hasi aurretik egoera zaugarrian, lan gabe edo lan prekarioetan zeuden pertsonak jasan zuten alderdi gordinena, **alarma egoera ezartzeak pertsona asko lan egiteko aukera gabe utzi baitzituen.** Egoera irregularrean zeuden migrarien, lan kontratu gabekoen eta etxeko zaintza zerbitzua eskaintzen zuten emakumeen egoera bereziki latza izan zen, egun batetik bestera inolako diru iturri gabe gelditu zirelako. Lana galdu zutenentzat, lana bilatzea oso zaila bihurtu zen eta etxean gelditu beharra emozionalki oso gogorra egin zitzaien.

Lan egitera kalera irten behar zirenen artean, bizipen anbibalenteak egon ziren: etxetik irtetzeko aukera asko eskertu zuten batzuek (entretentuta egotea, laguntzen ari zarela sentitzea, kideekin egotea eta taldearen parte sentitzea...), baina aldi berean, kutsatzeko arriskua ere handiagoa izanik, bereziki osasun eta zaintza langileentzat, honek estres handia suposatu zuen.

“

Ezinbestekoak ginen, eta gauetik goizera plantillaren erdia baino gehiago bajaran ikusi genuen. Dendak irekita eduki behar genituen eta etxeko bostak geunden bakarrik. Gaueko 23:00etatik 15:00ak arte lan egin dut. Leher eginda. Ez dut hainbeste negar egin nire bizitza osoan. Nik osasun arazoak nituen, eta sentitu nuen ez nuela ezertarako balio. Bakardaderik gordinenean. Egoera latza izan zen.



MO

Ezinbestekoak edo esentzialak zirenen kasuan, lan karga asko handitu zen eta gehienek lan baldintza oso txarretan aritu behar izan zuten (langileak bajaran, segurtasun ekipamendua faltan, neurrien aldakortasunera egokitu beharra, gaixotzeko beldurra, etab.). Garai honetan, langile hauei eskertza eta aitortza keinuak egin bazitzaizkien ere, askok salatzen dute lan askoren garrantzia ezkutuan gelditu zela, eta behin pandemia pasatakoan, ez dela inolako saiakerarik egin aitortza eta garrantzia sozial horrek egituretan eta langileen lan baldintzetan isla izan dezan. Zaintza eta osasun sektoreetan gertatu da hau bereziki.

Lehen sektoreko profesionalentzat ere aste gogorrak izan ziren haiek. Zuzeneko salmentak eta azokak oinarritzakoak dira baserritarrentzat, eta hauek debekatu izanak kolokan jarri zituen baserritarren diru-sarrerak. Ordiziaren kasuan, Udaletik horrela erabakita, **asteazkeneroko azokari jarraipena eman zitzaion**, horretarako babes neurri guztiak martxan jarri eta egoera aldakorrera etengabe egokituz. Lehen sektorea babesteko ahalegina izateaz gain, azokaren jarraipena keinu sinboliko indartsu bat izan zen ordiziarrentzat. Herri nortasunaren artikulazioan garrantzia handia du azokak, eta honi eusteak poztasuna ekarri zuen pozik egotea nekeza zen garaietan. Hala ere, neurri honekiko desadostasuna adierazi duten herritarrak ere egon ziren, eta horrela jaso dugu lanketa honetan ere.



Garbitzaileen lana ere ez da baloratu. Lanik garrantzitsuena izanik! Leku batean egon daitekeen hierarkia osoaren artean, garbitzailearen lana da garrantzitsuena.



ZZE

Beraz, osasungintza profesionalentzat, bestelako esentzialentzat, baserritarrentzat, etabarrentzat lanari lotutako bizipenak oso gogorrak izan ziren. Beldurrak eta ziurgabetasunak gurutzatutako bizipenak. Kontrako muturrean, **lan baldintza egokietan, segurtasunez, eta lantaldearen babesarekin lanera joateko aukera izan zutenen artean, badaude oso momentu politak oroitzen dituztenak.** Hauentzat, kideen arteko harremanak eta talde kohesioa indartu ziren, eta momentu zailetan elkarrekin aurrera egiteko satisfazioa betegarria egin zitzaion.

Udal mailan, COVID-19aren ondorioak kudeatzea eta herritarrei komunikatzea bilakatu ziren jardun nagusiak. Lantalde konprometitua eta kohesionatua osatu zuten, eta udal politiketan nabaritu zela adierazi dute herritar askok.



Nik, hasieran, maskarilarik ere ez neukan. Bihotzeko arazoekin, eta maskarilarik gabe, ordu luzez lanean jendearen aurrean. Eta, gainera, jendeak esaten zizun: “barkatu, ez iezadazu hitz egin, ez duzu maskarilarik”. Baina ez zegoen maskarilarik. Izugarria zen.



MO



Unerik txarrenetan, talde indartsuak sortzen dira, adiskidetasun garrantzitsuak, ezertaz ezagutzen ez dutun jendearekin.



ZZ (Kabia-San Jose egoitzako egoitzaburua)

Etxe beteak eta kale hutsak: **Etixeratze agindua**

Pandemiaren hasiera fase honen ezaugarri bereizgarriena etxeratze agindua izan zen, eta **etxean gelditu beharra ere izan zen herritar askorentzat pandemiaren alderdirik ilunena.** Bakarrik bizi ziren pertsonak, egoera zailean zeudenak (langabe, arazo psikologikoak...) eta haur txikiak izan ziren itxialdian gehien sufritu zutenak. Askorentzat, egoera noiz arte luzatuko zen ez jakitea antsietate iturri izan zen.

Elkarbizitza unitate guztietan izan zuen inpaktua itxialdiak, egunerokotasunetik atera eta 24 orduz elkarrekin egoteko derrigortasuna sortu baitzuen. Etxe barnean bizitzen zen giroa oso baldintzatuta egon zen kideen beharrak asetuta ala ez egotearekin (maila ekonomikoan, afektiboan...), eta **itxialdia batzuentzat opari izan zen bezala, beste batzuentzat amesgaizto bilakatu zen.** Lana galdu zuten familientzat edo etxebizitza txikiegiak zituztenentzat bereziki itogarria bihurtu zen egoera. Era berean, etxe barnean egoera bortitzak edo genero indarkeria bizi zuten emakumeentzat, inolako babesik gabe utzi zitzaizela salatu dute gizarte zerbitzuetatik.



Okerrena etxetik irten gabe egon behar hori, tristura hori, inorekin hartu-emanik ez, tristura hori, nahigabe hori... Semea portalera etorri, agur esan, eta etxera buelta.



BS (Adineko pertsona)

Etxea espazio seguru moduan bizi zuten askok, eta kalea, aldiz, beldurgarri, mehatxu eta arrisku zen. Adineko pertsonak edo arrisku faktoreak zituztenek isolamendu zorrotzagoak egin zituzten, eta batzuentzat denboran luzatutako bakardadeak ondorio psikologiko negatiboak utzi zituen. Senideak kanpoan zituztenentzat, bestalde, distantzia fisikoa amildegi bihurtu zen, ez zekiten noiz ikusi ahalko zituzten berriro, edota ezbeharren bat gertatuko balitz nola kudeatu ahalko luketen.

Azkenik, **batzuek etxeratze agindua ez betetzeko hautua egin zutelako** adierazi dute: etxetik irtetzeko beharra zutelako, gehiegizko isolamenduak ekar zitzakeen ondorio kaltegarriei beldurra (norberari edo seme-alabei) edo kutsatzeari beldurra erlatibizatzen zutelako.



Opari bat izan zen etxean egoteko aukera. 24 ordu izan genituen umeentzat. Normalean lana, bata, bestea... Ez diezu benetako denbora eskaintzen seme-alabei.



GT



Ni egunean hiru aldiz joaten nintzen ogiaren bila. Beharra sentitzen nun etxetik irtetzeko. Ez da etxean egotea, baizik eta inposaketa hori.



BS

Babesten duen ***herria: Elkar zaintza*** **eta elkartasuna**

“Pandemia honetatik hobeak irtengo gara” mantra baten moduan errepikatzen entzun zen pandemian zehar, eta hala zirudien alarma egoerako lehen egun hauetan: **oinarrizko behar materialak denengana iristeko bideak jarri ziren kolektiboki eta etxe barruetako isolamendua hausteko saiakerak egin ziren.**

Herrigintzatik, norbanakoak sustatuta edo udalaren inizatibaz, ekimen ugari aktibatu ziren Ordizian. **Garrantzitsuena, zalantza gabe, boluntario sarea izan zen:** ehundaka pertsonak eman zuten izena egoera zaurgarrian edo bakarrik zeuden pertsonen laguntzeko, eta beharra zuten pertsonetara iristea lortu zen (etxetik irten ezin zutenei erosketak egiteko funtzioa izan zuen bereziki sareak). Parte hartu zuten kideentzat aberasgarria izan zen herritarren behar errealei erantzuten lagundu ahal izatea, eta balorazio oso positiboa egiten dute, lagundutako pertsonekin harreman ederrak sortu zirelako eta jasotako eskertza guztiagatik.

“

Jostunak maskarilak egiten hasi ziren. Ikasleek ere pantailak egin zituzten 3D inpresoratan merkatarientzat eta behar zutenentzat. Merkatariek ere materiala eman zuten, oihalak, desinfektanteak...



Udalak ere egoeraren larritasuna arintzeko ahal zituen ekimenak jarri zituen martxan: **gizarte zerbitzuetatik, laguntza zerbitzu bereziak aktibatu ziren** (janari bonoa, bakarrik zeuden pertsonen deiak...) eta itxialdiko denboraldia goxatzeko, harremanak sustatzeko eta elkartasuna adierazteko bideak ere aktibatu ziren (ipuin kontaketa haurrentzat, kandelak piztea hildakoen oroimenez...). Herritarrek elkar-zaintza ekintza moduan jaso zituzten egitasmo hauek, eta asko eskertu zituzten.

Azkenik, aipagarria da egoera zaurgarrian edo **larritasunean egon ziren pertsonen ere herrikideen elkartasun keinuak eta laguntza jaso zituztela** momentu konkretuetan, alokairua ez ordaindu behar izatea taberna itxi behar izan zutelako, edo haurren zaintzaz arduratzea erosketak egin ahal izateko, besteak beste.

“

Ikusten nitun kaleak hutsik, jendea bakarrik, deskonfiantza izugarria jendearekiko, begiradak eta... Uf. Nik esan nun: “Etxean ezin naiz gelditu”. Eta horregatik apuntatu nintzan bolondres sarean.



BS

“

Nik kalean egiten dut lan, kale saltzailea naiz. Jende askok ezagutzen nau eta nire telefono zenbakia dauka. Deitu egin zidaten: “Aizu, non zaude? Zer nahi duzu? Janaririk behar duzu?” Jende askok lagundu zidan.



EZT

Bizilagunak inoiz baino gertuago izan genituenekoa: Bizilagunen arteko harremana

Pandemiak norberaren onena eta txarrena atera zuela aipatu izan da, eta bizilagunen arteko harremanetan islatzen da hau hoberen: batetik, **etxeko itxialdiaren bakardadean, ondoko atean bizi zena ezagutzeko edo harremana hobetzeko geldialdia** izan zuten askok; beste batzuentzat, ordea, **bizilagunek kontrol soziala eta poliziaren funtzioa gorpuztu zuten.**

“

Ni ez naiz hemengoa eta azko kostatzen zait jendearekin harremantzea. Eta hor auzoko jende asko ezagutu dut. Oso positiboa izan zen hori.



BS

“

Covid-ari esker bizilagunak ezagutu nitun. Deskubrimendu bat izan da. Oso gauza polita. Eta harez geroztik, portaleko bilerak desberdinak dira.



GT

Ordiziako auzo batzuetan elkartasun eta animazio giroa sortu zen, eta musika, jolasak edo bestelako jarduera ludikoen bitartez, etxeko paretak gainditu eta denok elkarrekin egotearen sentsazioa sortu zen une batzuez.

Senide eta ohiko lagunetatik urruti egonda, pertsona batzuentzat bizilagunak babesleku izan ziren itxialdiak iraun zuen bitartean, eta larrialdiaren bat gertatuz gero, haiek hor egoteak segurtasuna ematen zien. Beste batzuek, ordea, beldurrak jota, **bizilagunen arteko edozein harreman ekiditeko joera izan zuten**, eta ez zeuden laguntzeko edota laguntza eskatzeko prest.

“

Nire gurasoak konfinatuta egon zirenean, nik ezin nuen joan, eta auzoko guztien artean gurasoen behar guztiei erantzun zieten. Oso eskertuta nago horregatik.



MO

“

Ni behin irten nintzen gure etxe inguruko zona komunera, eta bizilaguna begiratzen 'por la mirilla', kontrolatzen.



GHOe

Jolas txikitan: Haurtzaroa pandemian

Lan hau egiteko haurrekin bildu ez garenez, haien bizipenak gurasoen begiradatik ekarriko ditugu. Hauen ahotik entzun dugu pandemia honetan ahaztuenak adin txikikoak **izan direla, eta ahaztuenetatik ahaztuenak nerabeak**. Izan ere, askoren iritziz, legedia helduen beharretara egokitzen zen lehendabizi, eta ondoren adin txikikoen errealitateak horra egokitzen ziren.

Itxialdian, gainontzeko herritarrei bezala, haur eta nerabeei egunerokotasuna eta proiektu pertsonak hautsi eta etxean egoteko betebeharra ezarri zitzairen. Etxea bilakatu zen haien unibertsoa, eta **etxeko egoera haien ongizate edo ongizate faltarako baldintzatzaile nagusia**. Egoera beldurrez edo tentsioz bizi zen etxeetan, eta umeei hori jaso eta barneratu zuten. Haur txikiak, etxeratzearen arrazoiak ulertu ezin zutenek, mugimendu asko edo kalea behar zutenek, edo zailtasun konkretuak zituztenek pasatu zuten okerren. Komunikatzeko edo harremanetarako zailtasunak zituzten haurrentzat edo integrazio prozesuetan zeudenentzat, ingurunearekin deskonexioak ondorio negatiboak izatearen beldurra sentitu zuten gurasoek.



Etsigarria izan zen. Nire seme-alabak Hondurasetik etorri berritan, nire ardurapean zeuden eta nire buruari esaten nion: "Niri zerbait gertatuz gero, zer gertatuko zaie? Zer gertatuko zaie herrialde honetan?" Beldur handia izan nuen. Herrialde honetara egokitzen ari ziren, Hondurasen ez zuten askatasun horretaz gozatzen ari ziren, eta koronabirusa etorri zen. Lanik gabe eta paperik gabe geratu nintzen. Hainbesteko kaosean erori nintzen... Hiru urte geroago, nire seme-alabekin terapia psikologikoa egiten nago; gogorra izan da haientzat. Nire seme zaharrenak ez du egin behar bezalako sozializaziorik.



EZT

Haur nagusiagoen kasuan edo egoera ulertu eta barneratu ahal zutenen kasuan, errazagoa izan zen etxe barneko kudeaketa eta haurren ongizate fisiko eta emozionala zaintzea. Etxean lasaitasunez eta beldur gabe (COVID-19a kutsatzea, lana galtzea...) haurrekin egoteko aukera izan zuten gurasoek etxeko giroa hobeto baloratzen dute.

Edozein kasutan, **haur eta nerabeak haien ingurunetik, kaletik eta jolasetik denbora gehiegiz isolatu zirela adierazi dute askok**. Arreta berezia jarri da aiton-amonekin izan zuten harremanean ere: haiengandik asko urrundu ziren eta haiek ez kutsatzeko gehiegizko presioa jarri zen haurrengan. Beldur eta tentsio hauek era egokian kanalizatzeko bideak ireki ez ziren kasuetan, ondorio negatiboak izan dituzte haurren garapenean.



Bitxiena zen polizia etxera etortzen zela bizilagun bat zarataz kexatzen zelako. Denok geunden etxe barruan, umeei parkera joan ezinik. Nola ez da, ba, zaratarik egongo? Zer egingo dugu, giltzapetu edo ahoa estali, zaratarik egin ez dezaten? Etsigarria zen.



EZT



Haurrak sakratuak dira. Haiek ez zuten kutsatzen, immunologia-sistema indartsuagoa zuten, ez zuten txertoaren beharrik... Eraman duten zama eta gizarte gisa bota diegun errua ez dagozkie adin horretako haur batzuei. Belaunaldi bat hipotekatu dugu.



SCP

Pantaila bidezko *besarkadak:* **Harreman birtualak**

Pantailaren bitartezko harremanek aurrez aurrekoak ordezkatu zituzten garai honetan, elkarrekin egoteko, zaintzeko eta komunikatzeko era berriak sortuz. Bizitzako esfera guztietan integratu ziren: senide eta lagun arteko kontaktua, aisialdira, ikasketak, eta kasu batzuetan, baita lanerako ere. Gainera, **COVID-19aren eraginez eta isolamenduaren ondorioz pairatzen ziren egoera lantzenak errazteko funtzioa ere izan zuten**, eta oso baliagarria izan zen askorentzat: ospitalean ingresatuta edo erresidentziako senideekin bideo-deiak, doluminak emateko...



Politena, distantzian bazan ere, hurbileko zein urrutiko lagunekin izandako bizipenak izan ziran. Hasieran, gauza asko egin genitun, imaginazioa baliatu gendun, ondo pasatu genuen.



BS

Batzuentzat taldearen parte izateko eta ingurukoekin partekatzeko aukera berriak ireki zituzten, eta garai honetan, telematikoki sormen eta irudimen handiko jarduerak egin zituztela oititzen dute.

Badaude harreman birtualen gehiegizko erabileraren inguruan alerta piztu dutenak ere, **isolamendua sustatu, menpekotasuna eragin eta ongizate emozionalean izan ditzakeen eraginari lotuta**, bereziki haur eta nerabeen kasuan.



Momentu horietan (pantailek) asko erreztu zituzten harremanak eta baita jendeak gustuko gauzak egitea: ipuin irakurketak haurrentzat, yoga klaseak dohainik, baserri inguruan bizi direnek argazkiak jartzea...



GHOe



Mingarriena haurrak babestu ez izana da. Garapen garaian gehiago behar izaten dute babes hori. Kaiola fisiko eta birtualean sartu ditugu: tori ordenagailua. Haur batzuk beren buruaz beste egiten ari dira, osasun mentalaren kontua izugarria izaten ari da.



SCP

Deseskalada eta normaltasun berria

[2020ko apirilaren 29tik abenduaren 31ra]

Etixeratze agindua indargabetuta, poliki-poliki abiatu genuen lau fasetako deseskalada. **Fase bakoitzeko ezaugarri eta neurrietara egokitzeko ahaleginek hartu zuten gure egunerokotasuna**, intzidentzia tasek, itxiera perimetralek, musuko, gel eta COVID-19 testek baldintzatutako bizitzak izan genituen epealdi honetan.

Normaltasun berri bat eraikitzen saiatu ginen guztia arrotz sentitzen bagenuen ere. Etxean egon izanaren ajeak bizkar gainean hartuta, kaleak berreskuratu genituen. **Elkar besarkatu eta elkarrekin egoteko nahia distantziek eta aforoek mugatu zuten**. Herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak biziberritu ziren.

Esentzialak ez zirenak lanera itzuli ziren, presentzialki zein telematikoki. Neurrien etengabeko dantzara ohitu ginen. Neurrien


inguruan hitz egiten ematen genituen orduak, hauen egokitasuna aztertzen, neurriak sortarazten ziguten ezinegona plazaratzen. Aldi berean, neurririk gabe pandemiaren bilakaerak izango lukeen bideak kezkatzen gintuen.


Uztailean fokopean izan genuen herria. COVID-19 agerraldi batek eraginda komunikabide guztietan ikusi genuen gure herria. Herria fokopean eta herritarrak susmopean.

Irailean eskolara itzuli ziren haur eta gaztetxoak. Neurri zorrotzen pean egin zuten itzulera. Burbuila, musuko eta gel.

Testak, positiboak, berrogeialdiak eta kontaktu zuzenak errutina bilakatu zitzaizkigun, normaltasun berriaren adierazle.

Kronologia





Barneratutako distantziak: **Kalea eta harremanak berreskuratzeko aukera erlatiboa**

Itxialdiaren amaierak progresiboki kalera irtetea ahalbidetu zuen, baina etxeko atea ez ziren berdin ireki guztientzat. Batzuentzat, pandemia osoko garai ederrenak pilatzen dira garai honetan, aire freskoa hartu eta gertukoak besarkatzeak ekarri zuen pozak eraginda. Senide, bikotekide edo lagunak urruti zituztenek aldiz, denbora gehiago itxaron behar izan zuten kontaktu fisikoa berreskuratzeko. Itxiera edo irekiera perimetralek erabat baldintzatu zituzten haien bizitzak epealdi honetan.

Erakunde publikoetatik eta osasun zerbitzuetatik egiten ziren deiak jarraituz, herritarrak ahalik eta denbora gehien egoten ziren etxean eta irteteko baldintzak (zeregin konkretuetara joatea, ordutegi mugak...) errespetatzen zituzten. Batzuek, beldurraren ondorioz, gehiegizko auto-isolamendua egin zutela edota ingurukoengan apatia edo kalera irteteko gogo falta sumatu zutela adierazten dute.

“

Lehenengo eguna utzi zigutena kalera ateratzen, gogoratzen naiz kriston pila egin nuela korrika, aspaldi egin gabe. Emozionatu nintzen eta negarrez hasi nintzen, askatasun hori berriz sentitzeagatik, eta kalean jendea pozik.



“

Dendan geunden, eta konturatzen zinen gizarte-lana ere egiten genuela. Adineko batzuk egunean hiruzpalau aldiz etortzen ziren, eta esaten zizuten: “Hau da egin dezakedan gauza bakarra, bakarrik nago”.



Epealdi honetan, kalera irtetzeko baldintzek aldaketa asko izan zituzten: lehendabizi, deseskaladaren lau faseak, eta ondoren, normaltasun berria; epealdiz epealdi, dekretu bitartez, arautu zena. Neurriok inpaktu handia zuten herritar guztiengan, baina **batzuentzat etxean gelditzen jarraitu behar izatea edo isolamendua eta muga fisikoei lotutako neurriak betetzea zailagoa izan zen.** Aktibitate ekonomiko erregularrik ez zuten herritarrentzat, edo etxean egoera oso zaila zutenentzat, bereziki gogorra izan zen epealdi hau.

Kalean zegoen herritar oro susmagarri bihurtu zen, eta gizarteko ohiko estratifikazio patroiak erreproduzitu zirenez, pertsona arrazalatuak, gazteak, buruko gaixotasunak zituztenak edota bazterketa egoeran zeudenak izan ziren kontrolatuenak, herritar batzuegandik, zein segurtasun indarren partetik.


“

Nire semeek konfinamentua amaitu zenean ere, ez zuten etxetik atera nahi.



“

Gero tabernak ireki zituzten, eta egunero egunero esplikatu behar izatea haurrei: “Ez, maitia, zuk etxera joan beharra dezu”. Gaizki. Gixajo hauetaz gogoratuko da norbait?



“

Nik Bilbora joan behar izan nuen materiala erostera (kale-saltzailea naiz), eta udalaren egiaztagiria ez banuen, ezin nuen herriz aldatu. Azkenean, udalak paper bat eman zidan, eta ez nuen arazorik izan.



Ezt

“

Jendia ateratzen zanean kalera, zahar egoitzakoak ezin ziren atera kalera, eta zeren isolatuta gela baten. Senarran ama egon da eta burutik oso gaizki, zegatik jun zan hara ez bakarrik egoteko etxen. Eta gero bakarrik gela baten. Ikusten zun jendea ateratzen zala, eta beraiek zergatik ez?



BS

“

Pertsona bat etxetik atera zitekeenean, Eroskin, ilaran ordubete egon ondoren, segurtasunekoak diskriminatu egin gintuen, ni eta beste bi emakume etxe beretik gentozela uste zuelako. Nork esan dizu senideak garela? Bai, azal-kolore berekoak gara, herrikideak gara; baina ez, ez gatoz etxe beretik. Eta ilaratik bota gintuen, ordubete zain egon ondoren. Polizia iritsi zen arte, segurtasunekoak ez zigun pasatzen utzi. Niri diskriminatzailea iruditu zitzaidan.



Ezt

“

Etxetik atera gabe egon behar bazen, ba etxetik atera gabe. Baina beste kontu bat da jendeari isunak jartzen hastea banku batean, bakarrik, eserita egoteagatik. Hor ikusten zen gauzak inposatzen saiatzen ari zitzazkizula.



SCP

Normaltasun berrira ezin iritsi: **Bizitza-proiektuei eta egunerokotasunari eustea**

Norberak bere bizitzari heltzeko gogoia eta ezina gailendu ziren epealdi honetan. Pandemia betean jarraitzen genuen, eta lehen olatutik errekuperatu gabe, bigarren olatuak harrapatu gintuen. Udal zerbitzuak, komertzioak, aisialdirako zerbitzuak, ikasketa zentroak... progresiboki eta neurri zorrotzekin irekitzen ziren, eta sarritan, egoera okertzean, berriz ixten ziren. **Baldintza hauetan oso zaila zen bizitza-proiektuak, harremanak edo zaletasunak berreskuratzea.** Bizitzako ezusteei erantzutea are gogorragoa izan zen ohiko egitura eta zerbitzuak martxan ez zeudenean.

“

Nik eskola utzi nuen online zelako, eta umeak oraindik ez ziren eskolara joaten. Irakasleek ez zuten ulertzen nik etxean haur bat nuela giltzapetuta. Nire balantzak alde batera egin zuen eta ikasketak utzi behar izan nituen. Hori izan zen gertatu zitzaidan okerrrena.



GT

“

Errautsak (amarenak) hartzeko ere itxaron behar izan genuen. Bazenekien ehortzetxean zeudela, baina ezin zenituen jaso, ezin zinelako etxetik irten. Orduka irteten hasi ahal izan ginenean, orduan jaso genituen.



GHOg

Irailean ikastetxeak berriz ireki ziren, era mailakatuan eta higiene eta segurtasun neurriekin (garbiketak, maskaren erabilera, termometroak, gel hidro-alkoholikoa,..) eta distantziak mantenduz (burbuilak, jarduerak murriztuz...). Gurasoentzat, haurrak eskolara bueltatzea lasaitasun-iturri izan bazen ere, ziurgabetasuna eta gelak ixteko mehatxua etengabeak izan ziren. Gainera, jarduera asko ez ziren berriz martxan jarri (eskolaz kanpoko ekintzak, psikomotrizitate gelak...).

Azkenik, aipatzekoa da pertsona **batzuentzat ohiko erritmoa gutxinaka berreskuratzeak lasaitasuna eta asebetetzea ere ekarri zirela**. Alderdi hau bereziki garrantzitsua izan zen itxialdian zehar erabat isolatuta (fisikoki edo psikologikoki) egon zirenentzat edo pandemiari eta honen eraginei buruz ordurarte konfiantzaz hitz egiteko aukerarik izan ez zutenentzat.



Nire semeak ezin izan zuen lagun batzuekin hitz egin, beste burbuilan zeudelako. Haurrek beren lagunak behar dituzte, haien harremanak.



Lanak, telelanak eta beste hamaika komeri: **Enpleguaren egoera**

Itxialdi garaian ezustea eta beldurra gailendu baziren, bigarren epealdi honetan, lan munduari dagokionez, kezka eta egokitu beharra nagusitu ziren. **Ordiziar asko lan telematikoan murgildu ziren, eta honek egoera berrietara moldatzera behartu zituen.** Beste batzuk aurrez eta normaltasunera bueltatzeko gogoia eta ilusioa; bestetik, COVID-19az kutsatzeko arriskua areagotzeak zekarren beldurra.

Sektore batzuetan, **oinarrizkoenak edo osasun-zerbitzuei lotutakoak, lan baldintza zailak mantendu ziren** (lan karga handiak, segurtasun neurriak betetzea,...) eta honi denboran luzatzearen nekea gehitu zitzaion. Hasieran gizartearen partetik jasotako eskertza eta balorazioa lausotuz joan ziren, eta estres eta bakardade sentazioak areagotu ziren.



Etxeetarako banaketarekin hasi ginen, baina hasieran gogorra izan zen. Hasi nintzen lehen astean lau pizza saldu nituen aste osoan. Eta gero pixkanaka gora egin zuen.



NBE oso bat jarri nuenean, jantzi eta kendu, esan nuen: "Nola egin ahal izan dute lan horrela ordu luzez?"



Lan-munduan neurriak maiztasun handiz aldatzen ziren, eta horrek etengabe egokitu beharra eta ziurgabetasun handia sortzen zituen. Bezeroekin arreta zuzena zuten jardunak protokoloen menpe zeuden, eta **segurtasun eta higiene neurriak bete behar izateak lan-karga eta kostuak asko igoarazi zituen**. Aforoari lotutako baldintzak betetzeak ere buruhauste handiak eta galera ekonomikoak sortu zizkien.

Negozio batzuk itxi egin behar izan zuten eta beste batzuk egokitu eta zerbitzu berriak eskaintzeko bideak ireki zituzten. **Aktibitate ekonomikoa mantentzeko diru-laguntzak jaso zituzten batzuek, baina denek ez zituzten baldintzak betetzen**, eta kasu batzuetan, hauetatik kanpo gelditu ziren. Ordiziako Udaleko merkataritza teknikariak bakoitzaren egoera aztertu eta diru-laguntzak tramitatzen egindako lana asko eskertzen dute merkatarari eta ostalariek.

Honi guztiari herritarren arteko distantzia eta segurtasun neurriek zuten eragina gehitu behar zaio; izan ere, egun batetik bestera, pertsonen arteko harremanak aldatu ziren, eta baita herriko komertzioak edo zerbitzuekin harremantzeko modua ere. **Bezeroen beldurra, haserrea edo ezinegona kudeatu behar izan zuten**, eta beste muturrean, eta maila apalago batean, elkartasun keinuak eta laguntza ere jaso zituztela adierazi dute. Tokiko merkataritza txikiaren indargune nagusietako bat gertutasuna da, eta bezeroekin distantzia mantendu beharra oso arrotza eta bortitza egin zitzairen batzuei.

“

Inguruan norbaitek positibo ematen bazuen, badaezpada kuarentena batzuk egin nituen. Horrek suposatzen zuen lan gabe egotea eta gero, hurrengo asteak gainkargatzea. Suposatu du galera ekonomikoa.



“

Itxarongela handi bat daukat, solarium handi bat, eta atea giltzatuta. Eta jendea kalean hotzak amorratzen dagoela lan egin behar dut? Itxarote-zerrenda ezin handiagoarekin! Eta produktu guztiak erabili eta botatzekoak. Ez zegoen erabili eta botatzeko produkturik! Nik fabrikatu behar izan nuen etxean, gauean lanetik iristen nintzenean.



“

Taberna bat dugu, eta gaueko bederatzietan ateratzen ginen pertsiana ixtera. Poliziarekin arazoak izan nituen, aldiro patruila bat pasatzen zelako eta zertan ari nintzen azaldu behar nielako.



“

Zorrak metatu ziren (gizarte segurantzak, pisua, lokala...). Koronabirusak iraun zuen bitartean, 3.000-4.000 euroko laguntzak zeuden taberna berriro martxan jartzeko, baina, jakina, baldintzak eskatzen zizkizuten: ordainketak egunean izatea. Eta ezinezkoa zen. Laguntza horiek ordainketak egunean zituzten negozioek, aurrezkiak zituztenek edo “utzidazu dirua, itzuliko dizut” esateko moduko aita bat zutenek soilik lortu ahal izan zituzten. Guk ezin izan genuen inolako laguntzarik lortu.



Bizipen guzti hauek **inpaktu handia izan zuten merkatarari eta ostalariengan**, eta eragina izan zuten pandemiaren kudeaketan posizionatzerako orduan; izan ere, gehienak oso kritiko azaldu dira garai honetan COVID-19aren hedapena murrizteko hartu ziren neurriekin, eta asko zentzugabetzat eta kontraesankortzat baloratzen dituzte.

Azkenik, aipatzekoa da lan irregularra edo kontraturik gabekoa zuten pertsonen egoera. Lehendabiziko itxialdian enplegua galdu zutenak poliki-poliki lan berriak lortzen hasi ziren, baina egoera berriz okertzen zenean galtzeko etengabeko arriskua zuten. Gainera, **kalean egoteko edo herritik irteteko mugek lanerako desplazamenduak oztopatzen zituzten, eta baita lan berrien bilaketa aktiboa egin ahal izatea ere**.

“

Nik antzerki eskolak ematen ditut, ez da fisikoa saltzen duguna, zerbitzu bat da. Eta denetatik kanpo geunden, ez zenekien zer arauri kasu egin behar zenion, zer laguntza eska zenezakeen... Laguntzetatik kanpo geratu ginen. Nik oso-oso gaizki pasatu dut.



MO

“

Niretzako unerik gogorrena maiatzaren 4a izan zen, oinarrizkotzat jo nindutenean. Negozioa irekiarazi zidaten. Primeran iruditzen zait. Baina bezeroak etorri ziren eta nik musukoa nuen, pantaila, ezin zenituen besarkatu, musurik eman... Gehiago ematen nuen istiluen aurkako polizia, eder jarriko zaituen pertsona bat baino. Elkar ikusteko genuen irrikarekin, distantzia izugarria zen.



MO

“

Nire nagusiak dokumentaziorik gabe ninduen, eta ez zidan herriz aldatu ahal izateko beharrezkoa nuen papera egin nahi izan. Eta nire buruari galdetu nion: “Nola egingo dut? Poliziak geldituko nau”. Eta horrela lanik gabe geratu nintzen.



Ezt

“

Ikastaroekin berriz hasi ginenean, jendea ez zen etortzen. Esaten dizute 4 pertsona bakarrik egon daitezkeela, gehi irakaslea. Eta jendea beldurrez. Biodantza, ahaztu, ezin zen kontakturik izan. Atzegikoekin ere ezin nuen klaserik eman, arrisku-sektorea baitzen. Uko egin beharreko beste gauza bat. Noiz kenduko da beldurra? Antzerkia terapeutikoa da, osasun fisikorako eta mentalerako.



MO

Gaixotzea baino gehiago: Positiboak eta berrogeialdiak

COVID-19a izatea gaixotzea baino askoz gehiago izan da. Gaixotasuna larri pasatu dute batzuek, heriotza arriskua izateraino. **Positibo izate hutsa ere beldurgarria izan da, adin altuko pertsonentzat eta egoera kliniko konplexua zutenentzat bereziki.** Norbera gaixotzeak, gainera, kontaktua mantendutako pertsonak kutsatzearen arriskua zekarren, eta horrek beldur eta erruduntasun handiak sortu zituen.

Gaixotasunak isolamendua ekartzen zuen halabeharrez, eta horrek sufrimendu gehigarria suposatzen zuen: **gaixorik eta bakarrik pasatu behar izan zen COVID-19a kasu gehienetan.** Horrek beldurra areagotzen zuen, eta zailagoa egiten zuen egoerari neurria hartzea. Gainera, etxe barruko kudeaketak kezka eta buruhauste handiak sortzen zituen (espazioak bereizi, komun bakarria segurtasunez nola erabili...) eta kasu batzuetan, kutsatutako pertsona bakartzea ezinezkoa zen. Ordiziako gizarte zerbitzuetatik ohartarazi dutenez, gainera, herritar zaurgarrienek ez zuten berrogeialdia egiteko aukerarik, eta kasu batzuetan, neurriak argi ez zituztenez, ez zituzten betetzen.

“

(Gizarte zerbitzuetan) Beste jatorri edo kultura batzuetako jendearekin, bapatean konturatu ginen ez zituztela neurri batzuk betetzen, eta horien atzetik polizi lan hori egiten egon behar izan ginen. Positibo eman zuten, eta egin behar zuten konfinamendua, baina ezin zuten egin, ze hiru elkarbitza unitate zeuden etxe berean. Igual komun bakarria zuten, esango didazu nola konfinatuko ziren. Orduan zen: haiek atera, eskeini hotela... Baina igual ez zuten joan nahi... Betearaztea hori...



UPZ

Ospitalean ingresatuta egon ziren pertsonentzat bereziki gogorra izan zen. Hemen ere, gaixotasunaren sintomei, testuinguru orokorra gehitu zitzairen. Beldurra handia zen, eta gainera, bakarrik zeuden. Senideek medikuen deia zain oroitzen dituzte egunak, ezjakintasun jasangaitz batean.

Epealdi honetan, COVID-19ari buruz gero eta ezagutza gehiago zegoen, eta aldi berean, gaixotasunari eta honen sintomei aurre egiteko baliabide hobeak eskaintzen ziren. Kutsadurak ekiditeko, isolamendua lehen mailako neurria bihurtu zen, eta hau ahalik eta era atsegin eta eraginkorrean egiteko baldintzak sortzeko saiakera batzuk egin ziren. Honen adibide dugu adineko zentroetan COVID-19 positibo ziren pertsonak egoitza bakar batera bideratzea. Horrela, **Ordiziako San Jose egoitza COVID-19 gaixoak artatzeko erreferentziatzko gune bihurtu zen**, eta kudeatzaileen esanetan, honek abantaila asko ekarri zituen: egoiliarrentzat ez ziren isolamendu baldintza zorrotzik ezarri behar, eta egoitza osoa konfinatuta zegoenez, behin barruan, aske mugitu zitezkeen; gainera, egoitzako langileek COVID-19 gaixoak artatzeko prestakuntza eta baliabide bereziak jaso zituzten, eta horrela, askoz hobeto erantzun zioten egoerak zuen larritasunari.

“

Hainbeste gauza egiteko esaten zizuten, baina azkenean ezinezkoa zen: garbitu zaitez, bakartu zaitez. Eta etxe handia baduzu, beharbada egin dezakezu. Baina, etxe txikia baduzu (sukalde bat eta bainugela bat), ezinezkoa da. Kutsatu ginenean Covid taldea egin genuen eta “komunetik kanpo nago” idatziz abisatzen genion elkarri.



“

Bost egun egon nintzen ZIUn, eta ondoren Covid plantara. Musukoa erabilarazten zidaten arriskua pasatu ez zelako. Bost egun Covid plantan, eta ondoren planta orokorrera. Ohetik jaikitzen nintzenean ezin nintzen bakarrik ibili, makal nengoen.




Egokitzapen honen alderdi gogorrena Ordiziako egoitzako ohiko egoiliarrek pairatu zuten; izan ere, Gipuzkoako egoitza desberdinetan sakabanatu zituzten (Tolosa, Zumarraga...), eta batzuentzat aldaketa zaila izan zen. Aurretik esan bezala, Ordiziakoa egoitza txikia eta familiarra zen, eta aurreko hilabeteetako heriotzen dolu prozesuari, leku aldaketa bat gehitu zitzairen.

COVID-19ak eragindako gaixoaldiei erantzuteko hasieran baino prestatuagoak zeuden, beraz, osasun eta zaintza zerbitzuak. Dena den, aipatzekoa da gaixoaldi gogorrek pasatutako batzuek errekuiperatzeko denbora asko behar izan zutela. **Beste batzuek, oraindik ere, COVID-19aren ondorioak kudeatzen jarraitzen dute:** Gorputzeko mina, eztula, nekea, zentzumenen galera eta abar luze bat.

Amaitzeko, pandemiak iraun zuen bitartean COVID-19ak izan zuen zentraltasunak eraginda, beste hainbat gaixotasun eta ezbehar bigarren mailan geratu ziren, eta hainbat herritarrek salatu dute gaixotasun hauek ez zirela behar bezala artatu.

“

Aita egon zan aste bete ospitalean ingresatuta, eta nik hitz egiten nuen aitakin, baina telefonoz. Eta telefono deian zain egun osoa, ia medikuak deituko zun ala ez.. Esaten ziguten, gaur ondo dago entre komillas, baina igual hemendik ordu batzutara badijoa, ez dakigu ezer.



“

Oso gauza ona egin genuen. Izan ere, gainerako egoitzei lagundu genien, haien zentroan ezin zutelako ondo kudeatu egoera. Guztiok bihurtu ginen aditu. Eta oso pozgarria izan zen, jendea oso pozik joaten baitzen



Neurtu ezin diren neurriak: **COVID-19a** **menperatzeko hartutako neurrien balorazioa**

Deseskalada hasi zenetik, normaltasun berria amaitu arteko epealdi honetan, agintari publikoek **COVID-19aren hedapena eteteko neurri ugari hartu zituzten, gehienak mugikortasuna, taldekatzeak eta aktibitate ekonomikoak mugatzeari lotuta.** Aurrez aipatu den moduan, pandemiaren bizipena eta eragina oso ezberdina izan zen Ordiziarrentzat honek eragin zuzena du pandemiaren kudeaketaren inguruan egiten duten balorazioan.

Orokorrean, **herritarrek neurriok betetzeko joera izan zutenaren pertzepzioa dago,** eta horrek birusaren hedapena murrizten lagundu zuela. Gainera, batzuek adierazi dute neurriak zorrotzago bete izan balira, egoera ez litzatekeela hainbeste okertuko.

“
Neurri batzuk ez zuten ez hankarik ez bururik. Baina bakoitzak berari afektatzen dizkionak ikusten ditu.



“
Jendeak arauak hausten zituenean, horrek izorratu egiten zintuen, baina ez zen nire jarrera udaltzainei deitzea, ezta ertzainei ere. Ni ez naiz polizia. Gainera, ez dut hainbesteko “gehiogikeriarik” ikusi, ez da eskandaluzkoa izan. Oro har, ondo kudeatu da egoera.



Neurriak jarraitzerako orduan, beldurra izan zen arrazoi nagusia hasieran. Denbora pasatu ahala, elkar-zaintzarekiko konpromisoa nagusitu zen, eta horregatik onartzen zen norberaren askatasunaren parte bati uko egitea. COVID-19aren hilkortasuna gertutik ezagutu dutenak izan dira, zalantza gabe, neurri hauek hoberen ulertu eta gehien defendatzen zituztenak (senideak galdu zituztenak, larrialdietako langileak...).


Bazeuden neurriekiko kritiko azaldu zirenak ere, eta horrela adierazi dute. Isolamenduari lotutako neurriek **pertsonen ongizate emozional eta psikologikoan ondorio negatiboak zituztela salatu dute batzuek,** eta uniformetasun handiz hartu izanak, kolektibo batzuegan beste batzuegan baino inpaktu latzagoa izan zutela (haurrak, buruko gaixotasuna duten pertsonak...). Harago doazenak ere badaude, zenbait neurri giza eskubideak eta eskubide zibil eta kolektiboak urratu zituztela ohartarazten dute.

Ikuspegi orokortua izan da herritarrek ez zutela informazio edo irizpide nahikorik egoera baloratu eta erabakiak hartu ahal izateko, eta osasun erakundeen eta agintarien esku utzi zutela erabakiak hartzeko ardura. Zentzu honetan, **gehiengoak adierazten du larritasun eta ezjakintasun egoera orokortu baten aurrean, agintariak ahal zutena egin zutela,** askotan inprobisazioz.

“
Hartu ziren erabaki asko beharrezkoak ziren, honi buleta emateko, egin beharrekoak ziren. Batzutan pentsatzen nun, denok jarraitu izan bagenu hori, igual lehenxeago bukatu izango zan.



“
Iruditzen zait neurriak hartu direla osasun fisikoari begira, eta hartu behar ziren, baina iruditzen zait osasun mentala, osasun emozionala, ez zaiela sekula begiratu guzti honetan, inongo kolektibotan. Erabakiak hartu dira pertsona konkretu batzuei begira, eta kolektibo batzuk ahaztuta egon dira.



Pandemia kontrolpean izateko irizpide eta araudi argi falta agerikoa izan zen, eta ez zegoen erabateko adostasunik esparru administratibo desberdinen artean. Ordiziako udalaren jokabidea EAEko edo Espainiako gobernuko agintariena baino hobeto baloratu da, eta gertutasunetik, herritarren hobebeharrez jokatu zutela iruditu zitzairen askori.

Maila altuagoko politikagintzan, ia denek oroitzen dituzte bereziki mingarriak egin zitzaizkien **egoera kontraesankorrak edo botere abusuak**: mugikortasuna galarazita zegoen momentuetan politikariek ez betetzea edo sektore batzuen intereserako neurriak dekretatzea (eskolak itxi baina oporrak ahalbidetu, edo hauteskundeak antolatzea beste jarduerak mugatzen ziren bitartean, besteak beste). Sektore batzuek pandemia negozioa egiteko baliatu izanaren pertzepzioa ere badute herritar batzuek, eta neurri batzuk interes korporatibo batzuen mesedetan hartu zirela (enpresa farmazeutikoak edo higienarako ekipamenduak, besteak beste).



Eztabaidatu daiteke neurriak eraginkorrak izan diren ala ez, baina kostu handia euki dutela gizarte bezela, nik uste nabarmena dela.



UPZ



Ez dakit neurri guztiekin bat natorren, baina, nire ustez, hausnartu eta ahal izan den neurrian hartu dira. Hortaz, ziurrenik, asko gaizki egongo dira, baina, nire iritziz, ahal zena egiten zen.



ZZ



Azaldu zenean administrazioko langileak golferak jolastera joan zirela, eta ikustea horrek ez duela ondorio bat izan... Hor bai galdu dudala fede guztia.



GHOe

Irribarreak ezkutuan: **Maskararen erabilera**

Maskararen edo musukoaren erabilera hasieran leku itxiarako eta borondatezko moduan hasi bazen ere, **uda erdialdean, etxetik irtendakoan, momentu oro eramatea derrigorrezko egin zen.** Pandemiaren amaiera arte, gehien luzatu den neurrietako bat izan da, pertsonen arteko distantzia bermatu ezin den leku itxietan bereziki. Egun, osasun zentroetan, indarrean jarraitzen duen neurria da.

Osasun langileentzat eta adineko pertsonekin edo gaixo kronikoekin lan egiten dutenentzat, **babes-neurri gakoa izan da, eta oso eraginkorra eta lasaigarria** haien jarduna egin ahal izateko. Izan ere, batzuek maskararen erabilera derrigorrezkoa ez zenean ere, erabiltzen jarraitzeko hautua egin zuten.



Nik lanean maskarilla eraman behar dut, eta ya ohitu naiz, orain gogorra egingo zitzaidan maskarilla gabe egotea. Ni kutsatzeko baino, besteak kutsatzeko.



BS



Egun batean Arranomenditik paseatzen nenenbilen, ez zihoan beste inor, eta atentzioa eman zidaten musukoa ez eramateagatik. Ez nuen ulertzen, ez zegoen inor. Hori obsesioa zen. Nik ez nuen gaizki ikusten musukoa eramatea, baina zentzuz. Ez zen normala mendian, segurtasun-tartea zainduta, errieta egitea.



GT

Herritarrek ere COVID-19az babesteko oso baliagarritzat zuten, eta legediak arautu bezala erabiltzea orokortu zen. Kalean une oro eta erabat bakarrik egonda erabili beharra zentzugabekeria moduan bizi izan bada ere, aldi berean, neurri orokor gisa beharrezkotzat hartu da. Espazio itxietan, edo distantziaz mantendu ezin zirenean, musukoa erabiltzea ulertzekoa zela iritzi arren, **mendian, kirola egitean eta bakarrik egotean musukoa erabili behar izatea gehiegikeria moduan bizi izan ziren.** Haurren kasuan, musukoa ordu luzez erabili behar izateak ere kritika gogorak jaso ditu.

Maskara erabili beharra leku batzuetara joateko eta jarduera batzuetan parte hartzeko oztopo izan zen, eta adibidez, batzuek nahiago izan zuten zinemara joan ordez, etxean pelikula bat ikustea. Badaude maskararen erabilera bereziki gaizki bizi izan dutenak ere, ezinegona sortu edo arnasa hartzeko zailtasunak sentitu dituztenak.

Azkenik, aurpegia gure buruarekin konektatzeko eta adierazpenerako elementu zentrala izanik, denbora luzez aurpegiaren parte bat ezkutuan izatearen **gizarte-ondorioen inguruan ohartarazi dute batzuek.** Entzumen arazoak dituzten pertsonentzat ere, komunikaziorako zailtasun gehigarri bat izan da ahoaren keinuak ezin ikusi izatea.

“

Kiroldegin, zintan, korrika, maskarillakin, ba pentsa! Klaro, askok kendu egiten zuten, eta zer egingo duzu?



“

Maskararekin, esaten zenuen, a ze estutasuna, a ze estutasuna, beroarekin eta guztiarekin. Baina, horretan ere haurrek pairatu zuten okerren.




“

Maskarak kriston eragin negatiboa izan du norberan identifikazioan ere bai, barre egiteko, ez egiteko... Gero konpleju pilo bat atera dira.



“

Guri lanean oso zaila egin zitzaigun, ze umek txikik direnen asko erakusten diezu zure aurpegiko kenuekin, baina maskarilakin ez zekiten parrez ari ziñen, ala errietan ari zinen. Orduan gelditzen ziren...



Txertoen ondorengo epealdia

[2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 5era]

Bagenekien txertoek ez zutela mirarik egingo, baina hori zen garai honetan elikatu gintuen esperantza nagusia. **Txertaketa prozesuak arreta guztia bereganatu zuen**, eta banan-banan, herritar asko pasatu ziren txertaketa ilaratik. Ez txertatzea erabaki zuten herrikideentzat ez ziren garai errazak izan, presioa eta epaia sentitu zituzten, eta batzuentzat, hauek izan ziren pandemia osoko garairik okerrenak.

COVID-19a ez zegoen gaindituta, ordea. Eta agerraldi berriek, alarma guztiak pizten

zituzten berriz. **Egoera aldakorrei neurria ezin hartu jarraitzen genuen**, arau, muga eta gomendioen dantzan. Oreka labainkorrean.

Ospitaletatik larrialdi mezuak iristen ziren, baina herrian gero eta oihartzun gutxiago egiten zutela zirudien. **Eta herriak bizi nahi zuen**. Gazteek parrandan irten nahi zuten, haurrek jolastu, ostalariek lan egin, eta elkar maite duenek besarkatu.

Tunelaren amaieran argia ikusi nahi genuen, besterik ez.

Kronologia

Urtarrilak 13
Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaileak hartzen ditu: EAEn itxiera perimetrala, 6 laguneko taldekatzea eta 22:00etatik 06:00etara mugikortasuna debekatzea, eta aisialdi eta kirolean murrizpenak (aforoa, ordutegiak...), besteak beste.

Urtarrilak 24
Espainia hirugarren olaturen gailurrean kokatzen da, Osasun Ministerioak eskaintako datuen arabera.

Urtarrilak 25
Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaile gehiago hartzen ditu: herrietako itxiera perimetrala eta 4 pertsonako bilera muga.

Otsailak 1
Ordiziako herritarren harrerarako bulegoa bere ohiko ordutegira bueltatzen da.

Otsailak 10
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak **taberna eta jatetxeak berriz irekitzea** baimentzen du.


Otsailak 15
Ondoko herri mugakideen artean **mugikortasuna baimentzen da,** jarduera sozio-ekonomikoak edo aire librean kirol jarduerak egiteko.

Otsailak 22
Ordiziako iturri guztiak irekitzen dira.

Martxoak 17
Ordiziako Udalak **Artzain Eguna bertan behera** gelditzen dela adierazten du, eta Idiazabal Gazta berriaren aurkezpena Oianguan egingo dela, edukiera mugatuarekin eta komunikabideei eta gonbidatuei zuzenduta.

Martxoak 9
EAE barneko mugikortasuna irekitzen da, baina murriztapen batzuk mantentzen dira (edukiera mugak, pertsona taldeak, gaueko mugikortasuna...).

Martxoak 29
Eusko Jaurlaritzak neurri berriak ezartzen ditu: udalerriko itxiera perimetrala, espazio pribatuetan bizikideak diren pertsonak bakarrik elkartu daitezke, etxeratze agindua 22:00tik 06:00ra eta ostalaritzako ordutegiaren murriztea.



Eta txertoak iritsi ziren: Txertaketa kanpainaren hasiera

Pandemia hasi zenetik **COVID-19aren kontrako txertoa lortzea mundu mailako helburu bilakatu zen.** Zientzialariak eta osasun adituak inoiz ezagutu gabeko denboraren kontrako lasterketa batean sartu ziren, eta gobernuek biztanleria osoa babesteko moduko txerto dosiak ziurtatzera bideratu zituzten indarrak. Herritarrak COVID-19aren hilkortasun-maila eta osasun egoeraz kezkatuta zeuden, eta baita ohiko bizimodua baldintzatzen zuten mugez gogaituta ere. Testuinguru honetan, txertaketa kanpaina hastearekin batera, itxaropen berriak ireki ziren.

“

Txertoerik esker, egoera asko hobetzen hasi zen egoitzan.



ZZ

“

Nik, sanitario bezala, oso goiz hartu nun bakuna, eta izan zan alibio handia.



GT

“

Bigarren Astra Zeneca dosia hartzeko bi egun falta zitzaizkidanean hasi ziren esaten tronboena, ez hartzeko, arriskutsua zela, beste batzuk ez nahasteko Pfizerrakin... Ez geneukan inolako informaziorik eta erabaki bat hartu beharra geneukan. Ez zegoen informazio ziurrik inondik.



BS

Herritar gehienak txertaketarako txanda noiz iritsiko zain zeuden, horrek segurtasuna eta lasaitasuna ematen baitzien. Txertoen inguruan zalantzak egon arren, iritzi orokortua izan zen txertoak baliagarriak izan zirela COVID-19az ez kutsatzeko, baina baita kutsatzekotan, sintoma arinagoak izateko ere. Hortaz, arrisku faktoreak zuten pertsonentzat beldur gutxiagorekin bizitzeko eta bizitzako esparru batzuk berreskuratzeko aukerak ireki ziren. Osasun langileak eta adineko pertsonekin lan egiten zutenentzat ere, pandemiako mugarri nagusienetako bat izan zen txertaketa orokortua, laneko presioa asko murriztea ekarri baitzien.

Hala ere, **txertoen ondorioen inguruko kezkak ere bazeuden,** eta batzuen ustez, gobernuek eta txertoen ekoizleek ez zuten gardentasun osoz jokatu. Txertaketaren ondorio negatibo posibleen ardura herritarrengan utzi zela ere salatu da.

Norbera babesteaz gain, **txertatzea ardura kolektibo moduan bizi izan zuten** ordiziar askok: txertoaren segurtasuna eta ondorio kaltegarrien inguruko zalantzak izanda ere, pandemia egoerak norberak bere alea jartzea eskatzen zuela irizten zuten. Hauentzat, txertatzea, elkartasun keinu ere izan zen.

“

Nik txertoak jarri nituen, baina txerto hauen prozesua oso azkarra izan da. Arrisku bat hartzen zenuela ere sentitzen zenuen. Hala ere, nire iritzi, egin behar genuen, guztion onerako.



GHog

“

Txertoak zein ondorio utzi dituen; nik horrekin kezka badaukat. Txertoa jarri nun, eta gero hormonalki, kostatu zitzaidan nire bueltatzea. Eta esaten duzu: “Covid-an eragina da? Txertoarena?” Gero hitz egiten duzu beste lankide batzuekin, eta: “Ni ere bai, ni ere bai”. Ahaztu egin da hortaz.



GT

Txertoa ardura kolektiboaren izenean jarri arren, herritar asko dira **txertoen ondorio negatiboen inguruan arreta gehiago jarri behar dela aipatzen dutenak**. Hilerokoaren zikloan eman diren aldaketak eta pertsona gazteengan emandako iktus kasuen gorakadak dira kezka iturri nagusiak.

Txertoaren aukera hor egon arren, beste hainbat ordiziarrek ez txertatzea erabaki zuten. Haien iritziz, txertoa fase esperimentalean zegoen eta **ez zegoen informazio nahikorik gorputzean eragin zitzakeen kalteen inguruan**. Zentzu honetan, norberak bere gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea aldarrikatzen zuten, eta osasun krisia beste era batean kudeatzea defendatzen zuten.



Derrameak, iktusak... pertzepzioa badago hazi egin direla jende gazte eta osasuntsuan.



GT



OMEk argi eta garbi esan zuen txertoa borondatezkoa zela eta borondatezkoa izan behar zuela, eta hori ez da errespetatu. Non dago 'nire gorputzean nik agintzen dut' dioen hori?



SCP



Pasaporte jarri zutenean, nire alabak esan zidan: "Sentitzen dut, ama, baina nik behar dut nire bizitza soziala eta txertatuko naiz". Niretzako izan da "como si me quitaran a mi bebé". Izorratu didana izan da ez zela txertatu konbentziturata zegoelako, baizik eta behar zuelako bizitza soziala.



SCP

Txertatzeko gizarte presio handia sentitu izana salatu dute, eta kasu batzuetan, hartutako erabakiaren ondorioz bazterketa soziala ere pairatu zuten ("covid pasaportearen atalean sakonduko dugu honetan). Praktikan, aukeratzeko askatasun eza sentitu zuten batzuek, eta hori, gizartean, orokorrean dugun posizionamenduarekin gurutzatu zen: lana galtzea edo sozialki baztertua sentitzeak inpaktu desberdina du norbanako bakoitzarengan.

Pandemia osoan zehar hartutako neurri ezberdinekin gertatu moduan (distantziak, musukoak, etab.) txertoen inguruan ere eztabaida soziala sortu zen. Askatasun indibidualaren eta ardura kolektiboaren esparrura eraman zen eztabaida eta momentu horretan zaila izan zen besteekin enpatizatzea, beste erabakiak ulertzen saiatzea.



Batzuetan pentsatzen dut: Nire gurasoak bizi izan balira, zein izango zatekeen nire jarrera?



SCP



Bakoitzak pandemia leku batetik bizi izan du eta besteen lekun jartzea, besteekin enpatizatzea, ez zan erreza.



BS



Aitona-amona askok esan digute behartu dituztela txertoa hartzera, haiengatik balitz, ez zutela txertorik hartuko.



ZZE

Txanponaren *alde biak:* **Gazteak pandemian**

Nerabe eta gazteak izan dira seguraski, COVID-19aren arriskua distantzia gehiagorekin bizi izan dutenak, eta aldi berean, hartutako neurrien ondorio latzenak jasan dituztenak. Gaztaroa gehien ezaugarritzen dituen elementuak lagunen arteko harremanak erdigunean jartzea, eta espazioa eta ordutegiari dagokionez, haurtzaroan izandako mugak gainditzea dira. Horregatik, **pandemiak bizitzako fase honen garapena oztopatu zuen**, eta nerabezaro-gaztarotik igarotzen ari ziren pertsonengan eragin zuzena izan zuen.

Aldi berean, gazteak gizartearen parte ere badira, eta gizarte moduan ditugun ardura kolektibo eta erronken parte diren neurrian, erantzukizun kolektiboa eskatzen zaie. Herritar talde guztietan bezala, gazte askok COVID-19aren hedapena mugatzeko **neurriekin bat egin zuten, eta haien gain hartu zuten haien buruen eta inguruko zaintza**. Boluntario sarean, esate baterako, gazteen partaidetza oso altua izan zen.

“

Nerabeei min asko egin zaie: “Ezin zarete aglomeratu, ezin zarete tabernetan sartu, ez kendu maskarilla, nagusiak babestu behar dituzue...”



“

Gazteek bolondres zerbitzuan parte hartu zuten. Eta nik entzuten dudanean gazteei buruz gaizki hitz egiten esaten dut: “Ei, zuri nork eramaten zizun janaria konfinamenduan?”



Uda garaian, eta egoera epidemiologikoa hobetu ahala, neurri batzuk lausotzen hasi ziren, eta gazteen harremanetarako, parrandarako eta kalerako irrika azaleratzen hasi zen. **Gaeko aisialdian mugak zeudenez, kalean biltzen ziren, eta kasu batzuetan, talde handietan. Honek, gizarteko sektore batzuen gaitzespena** izan zuten, eta adibidez, Ordiziako kasuan, udalak adierazpena atera zuen zarata mugatu, hondakinak batu eta neurriak betetzeko eskatuz.

“

Ni esnatzen nintzenean gauez, eta entzuten nituenean gazteak dantzan eta abesten kalean, sentitu nintzen minduta. Eta nire senarra: “Baina pixkat normala da”. Eta ni: “Baina, nola? Nire ama hil da Covid-agatik!” Iruditzen zitzaidan agresio bat hori egitea. Gero ulertu nuen pixkat.



“

Nerabeak sentitzen dugu emozionalki daudela nahastuta bezela. Inpaktatu die, eta haien kudeaketa emozionalean kriston inpaktua izan du. Nik uste gazteek oso triste pasatu dutela eta horrek ‘poso’ bat utzi diela.



“

Gazteoi ‘sospetxoso’ moduan ikusi zitzaigun aurrera ateratzeagatik bizi nahi hori. Eta gaztea zarenean gogo asko dituzu gauzak egiteko.



Herritarrak fokupean: Komunikabideen jarrera

Komunikabideek egindako jarraipena izan zen pandemiaren ezaugarri bereizgarri bat, orain arte ezagutu gabekoa. Pandemiaren inguruan **datu ofizialak jasotzeko, neurrien inguruan informatzeko eta eztabaida gai nagusien berri izateko iturri nagusiak** izan ziren komunikabideak. COVID-19aren larrialdiaren inguruan kontzientzia hartzeko balio zuten, baina batzuentzat, beldurrak eta arauen betetzeak leku gehiegi izan zuen komunikazio estiloan.

Itxialdian, egoera berri baten aurrean, eta etxeko bakardadean, sare sozialak eta komunikabideak izan ziren munduarekin konektatzen gintuztenak. Ondoren ere, komunikabideek helarazten zuten mezuen jarraipena handia izan zen, kasu batzuetan, menpekotasuna sortzeraino.

“

Ni bakarrik bizi naiz. Ni telebista ikusten hasi nintzen, ezer ikusi nahi ez nuela erabaki nuen arte. Oso gaizki pasatzen da bakarrik bizita.



SCP

“

Olentzero antolatu zuten, hesi batekin, umek eserita, ordutegi batekin... Baina ETBk emandako irudietan, teleobjeto batekin, hamar metrotara dauden pertsonak ematen du bata bestearen gainean daudela, eta ez zegoen horrela. Eta konparatuta Beasainekin. Eta hori manipulazioa izan zen.



GHOe

Komunikabideak, gainera inoiz ez dira neutralak, eta informazioaz haratago doazen interesen arabera helarazten dituzte mezu batzuk edo beste, modu batean edo bestean. Desinformazioaren garai honetan, komunikabidetatik jasotzen den hori kritikotasunetik lantzea da gizarte moduan dugun erronketariko bat. **COVID-19 garaian nabarmena izan zen informazioa eta manipulazioaren artean bereizteko zailtasuna.**

Ordizian gainera, komunikabideek jarraipen berezia egiten zuten egoera epidemiologikoa okertzen zen bakoitzean, kasu batzuetan, **errealitatea desitxuratuz edo positiboak izan zitezkeen ikuspegiak eta datuak ezkutatuz.** Horrek haserrea eragin zuen herritar askorengan, eta udala etengabeko presio honi erantzuteko prestatzen eta erreakzionatzen egotera behartu zuen. Udal kudeaketan ere, erabaki batzuk fokuen menpe egotearen kezkatik hartu izana aitortzen du udal ordezkarien lantaldeak.

“

Gogorra egiten zitzaidan telebistan egiten zuten lana etxean gestionatzea. Telebasura.



GT

“

Ordizian egin zen lehen baheketa edo 'cribado' masiboa, herritarrei deialdi irekia egin eta testak karpetan eginda. Laborategi bat izan zen, eta estatuko komunikabide guztiak azaldu ziren (TVE, Antena 3, Telecinco, la Sexta, eta baita autonomikoak ere). Ordizia zona zero bilakatu zen, eta gainera hauteskunde garaia ere izan zen. Horrek cocktail izugarria sortu zuen, eta Ordizia pandemiarekin lotu zuen komunikatiboki. Presioa izugarria izan zen, eta ez genuen gaineratik kentzea lortu.



UPZ

Larrialdiaren amaiera fasea

[2021eko urriaren 6tik 2022ko martxoaren 14ra]

Luze zihoan pandemia, oso luze. **Herritar gehienongan nabaria zen jada nekea.** Pandemiari lotutako bizipenak atzean utzi nahi genituen, “normal” bizitzera itzuli. Eta pandemiako bizipenak atzean uztearekin batera ahaztu ginen ezinean eusten jarraitzen zuten osasun zerbitzuetako langileez. Arratsaldeko zortzietako txaloak isildu ziren eta osasun profesionalak bakarrik sentitu ziren.

Distantziak eta bi urteko eskarmentuak ematen zuten patxadatik, pandemiarekiko begirada aldatzen joan ginen. **Desadostasunak azaleratu ziren, eta isiltasunean gordetakoak plazaratzen.**

“Covid pasaporteak” ezarri zenean arrakalak ireki ziren gure herrian. Komunitate sendo eta kohesionatu bat behar genuen unean pasaporteak herritarren arteko zubiak apurtu zituen. Aldeko eta kontrako.

Bi urte luzez pandemiak baldintzatu zituen gure arteko harremanak, distantziek, mugek eta neurriek. Harremanek jasandako haustura hau gaingitu ezinean zebiltzan hainbat herritar. Pandemiak gudan utzitako arrastoak.

Eta ahaztura kolektiboaren aurrean memoria eskatzen zuten zenbaitek. **Memoria eta aitortza.** San Jose Erresidentzian hildakoen senideek eta pandemiaren eragin zuzena jasan zutenek ez ahazteko eskatzen ziguten. Komunitatearen besarkada sentitu nahi zuten.

Kronologia

Urriak 6
EAEn larrialdi egoera amaitzen da, eta normaltasun berriari sartzeko neurriak ezartzen dira (maskaren erabilera, ordu-tegiak, aforoak, jardueren antolaketa...).

Urriak 18
Haurrak ere bai plataformak sustatuta, ikastetxeen sarreretan mobilizazioak egiten dira, Lehen Hezkuntzan maskararen erabilera derrigorrezkoa ez dadin izan. Ordizian ere.

Urriak 16
Ordiziako Gaztelekua irekitzen da, pandemian zehar itxita egon ondoren.

Urriak 20
Bizitza Plataformak hezkuntzako protokoloak bertan behera uztea exijitzen du (maskarak, hidrogelaren erabilera, tenperatura hartzea, distantzia soziala...)

Urriak 23
Ordizian COVID-19aren ondorioz hil ziren pertsonen omenaldia egin zitzaion, San Jose erresidentzian. Hildakoen 85 senidek hartu zuten parte. San Jose erresidentzian 68 egoiliarretatik COVID-19arekin 37 pertsona hil ziren.

Azaroak 16
Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150 kasutik gorakoa duten udalerrietan Eusko Jaurlaritzaren gidalerro berriak aktibatzen dira: ekitaldi jendetsuak bertan behera uztea edo atzeratzea, eta udalei babes-neurriak indartzeko gomendioak ematea (pertsonek arteko distantzia, kanpoan jarduerak egitea).

Azaroak 29
Omicron aldaeraren lehen kasua agertzen da Espainian.


Abenduak 2
Pandemian zehar itxita egon ondoren, Ordiziako ikasgela irekitzen da, neurri zehatzekin (maskara, aforoa, izen-ematea, aireztapena,...).

Abenduak 3
EAEn 233 ikasgela daude konfinatuta COVID-19agatik, kopuru altuenetakoa.

Abenduak 4
COVID-19 pasaporteak gaueko aisialdian eta 50 pertsona baino gehiagoko jatetxeetan ezartzen da, eta abenduaren 16tik aurrera, kirol eta kultura ekipamenduetan.

Abenduak 18
Bizitza Plataformak deituta, "COVID pasaportearen kontrako manifestazioa" egiten da Donostian.

Abenduak 7
Espainiako Osasun Ministerioak 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako txertoak onartzen ditu.



Ezinean eutsi *zutenak:* **Osasun sistemaren egoera**

Mundu mailako osasun sistemak ez zeuden prest pandemiaren ondorioak kudeatzeko. Ustekabean harrapatu zituen, eta ez zegoen egoerari aurre egiteko baliabide material eta pertsonal nahikoa. Egiturak eta protokoloak ere ez zeuden prest. **Hasieran, beraz, kaosa nagusitu zen osasun egituraren eskala guztietan, baina bereziki larrialdietan eta sortu berriak ziren COVID-19 unitateetan.** Ondorioz, COVID-19 kasu larrien gorakada bortitzen aurrean, ezinezkoa zen gaixo guztiak behar bezala artatzea.

Larritasun maila desberdinekin, osasun sistemaren saturazioak pandemia osoan iraun zuela adierazi dute gertutik ezagutu dutenek. Barne protokoloak aldatuz joan ziren, segurtasun eta babeserako ekipamenduak ere hobetu ziren, baina **oinarriko egitura eta langileen lan baldintzetan ez zela aldaketarik egin** ere adierazten dute.

“

Ospitalean nengoenean ikusi nuen gertatzen ari zena zeinen gogorra zen.



“

Orduan, gehiago egin zitekeen haiengatik? Beharbada bai, batek daki nire aita intubatuz gero aurrera aterako zen ala ez. Hilabete egon zen, diagnostikoa egin eta lau egunera hil zen. Eta hori han geratuko da. Eta ez da nire kasua bakarrik. Zalantza geratzen zaizu.



Egoeraren iraute honek neke eta haserre handia sortu zuen osasun langileengan. Hasieran, pandemiari erantzuteko rol erabakigarria zutela ikusiz, **gain-esfortzu handiak egiteko prestutasuna erakutsi zuten, lan karga handiak eta estresa ahal bezala kudeatuz.** Pandemiaren lehen hilabete horietan, gainera, herritar eta politikarien partetik, aitortza eta eskertza mezuak nonahi helarazten zitzaizkien, heroien pare jartzeraino. Baina olatu berri bakoitzarekin, osasun langileen egoera mugara eramaten zen berriz ere, eta ospitaletako errealitate gordina gero eta ezkutuago gelditzen zen. Langileak oso bakarrik sentitu ziren, eta haien egoerarekiko axolagabekeria handia egon zela sentitzen dute.

“

Olatu batetik bestera ez al degu zerbait ikasi behar? Ba ez. Prebentzioan, ospitalen kudeaketan, lantalde eta langileen baldintzetan.



“

Erizainoi kontratu 'mierdak' eman dizkigute, kontratu bat, beste bat, oporrik izan gabe. Erabaki nun uztea, ze non nago ni? Eta blokeatu nintzen listetatik.



Pandemia egoeran, gainera, **psikologikoki eta emozionalki eustea zailagoa egiten zuten aldagai asko gehitu ziren:** pazienteak isolatuta, seniderik gabe eta beldur handiz zeuden, eta kasu batzuetan, denbora luzez ingresatuta; heriotza-tasa altua zen, eta heriotza batzuk ekidin zitezkeelaren sentsazioa zuten; norberak ahal zuen guztia egin arren, ezagunak galtzen ikustearen frustrazioa; edo norbera ez kutsatu eta psikologikoki ongi mantentzeko ardura. Honek guztiak arrasto sakona utzi du osasun langileengan.

Beste maila batean, San Jose egoitzako langile batek ere hasierako eskertzak apaltzerakoan sentitutako **babesgabetasuna eta desengainua** adierazi zuen: pandemiak osasun eta zaintza lanak beharrezkoak zirela erakutsi zuen, eta horrela aitortu ziren epealdi batez, baina ondoren, horrek ez zien eragin egituren egokitzapenean edo langileen lan-baldintzen hobekuntzetan.

“

Ni asko hunkitzen ninduen deitzen eta esaten zidatenean: “Erabiltzaile honek covid dauka”. Hori oso gogorra egiten zitzaidan. Ni izan ote naiz? Baina, dena ondo egin dut! Niretzat hori izugarria zen. Gorputzean nuen beldurra.



ZZ (Etxez etxeko langilea)

“

Bai gaizki pasatu detela lan egiteko moduengatik: tentsio kontinua da, pazienteak daude zure kargu. Gauza askoren pendiente egon beharra dezu.



GHOe

“

Pazienteak bakarrik zeuden (UCI plantan) eta gu ginen beraiantzako familia, emaztea, alaba, eta dena. Negar egin nahi bazuten, gurekin egiten zuten. Haserre bazeren, gurekin kontaktzen zuten. Nik 20 urte baino gehiago daramat lan hontan eta beti oso ondo jakin det distantzia bat mantentzen jendeakin, baina covid-en erabat galdu non. Eta oso gaizki sentitzen ziren. Nik tratatu ditut nire familiakoak izango balira bezala, eta hainbeste jende galdu det, oso gaizki sentitu naizela.



GHOe

“

Inozoa izan nintzen. Pentsatu nuen: “Agian, honen ondoren, gehiago balioesten hasiko dira Aldundian, Kabian... eta ratioak doitzen hasiko dira, hitzarmenak hobetuko dituzte”. Inozoa ni! Ez da halakorik gertatu. Gure lana ez da batere balioesten egunerokoan.



ZZE

Mugak estutzen: **Covid pasaportea**

Txertaketa dosi osoa zutenek "covid pasaportea" deiturikoa eskuratzen zuten, eta honi esker, gaueko aisialdiko establezimenduetan, jatetxeetan, eta kirol, kultura eta aisialdi ekipamenduetan sartzeko aukera zuten. Herrialde batzuetara bidaiatzeko ere, derrigorrezkoa zen.

Txertatuta zeudenentzat, tramite bat besterik ez zen izan, haien bizitzetan inolako inpakturik izan ez zuena, eta batzuek ia gogoratzen ez dutena. **Txertatu gabekoentzat, ordea, amesgaizto bihurtu zen: seinalatuak sentitu ziren, esparru batzuetatik baztertuak, eta eskubide batzuk mugatuak ikusi zituzten.** Haur eta nerabeen kasuan, are okerragoa izan zen: batzuk aisialdi eta kirol aukera gabe gelditu ziren, eta garai honetan, taldearen parte sentitzea eta norbere garapenerako aukerak izatea ezinbestekoa denez, sufrimendu handiz bizi izan zuten.

“

Pasaporte covid-ana hasieran gaizki bizi izan nun, ze dantza egiten nun Donostin eta ezin izan nun joan. Antzerki bat ikusteko amorratuta negon eta sarrera erosita nun, eta ezin izan nintzan joan. Baina segitun konturatu nintzan hasarratzea ez zela bidea, ze ulertzen nun ere beldurra eukitzen zun jendea, ze nik euki nun beldurra aurretik.



“

Nire semeak ez zuen txertoa hartu, eta ez zeukan nora joan. Haren babeslekua kirola zen, eta alde guztietatik bota zuten: kiroldegietatik, klubetatik... Esan zidan: "aita, ez dakit zertan ari naizen bizitza honetan".



Txanponaren beste aldean, neurriaren betearazle figurak zeuden. Egun batetik bestera, **udal zerbitzuetako langileak edo tabernariak herritarrei "covid pasaportea" eskatzera behartuak izan ziren**, eta ez zen beti erreza izan: batzuk ez ziren eroso sentitzen rol horretan, eta "covid pasaportea" ez zuten herritarrekin tentsio uneak sortzen ziren. Langile hauetako batzuentzat oso bortitza izan zen herrikideen arteko gatazka hauek kudeatzea.

“

Jendeari ezin uztea pasatzen ez delako txertatu? Ez zan nahita nahiezkoa... baina jende askori afektatu zion. Umeak ezin ziran sartu igerilekura, gurasoak ez zirelako txertatu! Hori oso, oso gogorra.



“

Pasaporte covid oso gogorra izan zan. Ze, gainera, herriko jendearekin enfrentatzen zea, eta ezagutzen zaitue: "Nik ez ditut jarri arauak, ni bakarrik betearazten ari naiz..." Oso-oso gaizki, oso-oso gaizki. (...) Enfretamenduak euki ditugu jendearekin.



Txertatuta egon ala ez, herritar askok adierazi dute neurri honekiko kontrakotasuna. Batetik, COVID-19aren momentu horretako egoera eta indarrean zeuden gainontzeko neurriak kontuan hartuta, neurri hau gehiegizkoa izan zela uste dute ordiziar askok. Gainera, **“covid pasaporte”k pandemia osoan egon ez zen gizarte banaketa eragin zuen, herritarren arteko arrakala bat sortuz.** Udal ordezkariak ere neurri honek herrian izan zuen ondorio baztertzaila aitortzen dute.

Badaude txertatzea gizarte ardura moduan bizi izan zutenak ere, norbera eta ingurukoak babesteko, eta ardura honekin bat ez egiteak, ondorioak izan behar zituela irizten zutenak. Ikuspegi hau nabarmenago azaleratzen da COVID-19aren hilkortasuna gertutik ezagutu zutenen artean.

“

Eta, klaro, guk uzten bagenien pasatzen covid pasaportea ez zeukatenei, etortzen ziren besteak eta esaten ziguten: “E, zu, zer ari zara egiten? Hauek ezin dira pasatu!” Eta horiek arrazoia zuten, ze guk dekretua bete behar genuen.



“

Langileen aldetik ere, nik sindikatuak faltan bota ditut zentzu horretan, ze nik uste langileen funtzioetan ez dagoela kontrolarena. Eskatzen dizut pasaporte, ez didazu erakusten, eta ni jarri behar naiz polizia lanetan? Ekar dezatela Ertzainta, nahi badute.



“

Bonbardaketa bat izan da, gehiegikeri bat izan zen. Jendeari obligatzea eta askatasuna hainbeste mugatzea oso gogorra egin zitzaiteen.



“

Nire senarrak esaten zun eta, ni ados negon: “Ez baduzu zure aldetik jartzen ahal dana, gero ondorioak zureak dire. Gero Covid-a pasatzen duzula, konplikatzen zaizula, ba hor konpon! Zure aukera izan duzu”



“

Covid pasaportearekin igual ez ginen ausartak izan esateko: “begira, ikusiko dugu beste modura egin dezakegun edo gure langileek kontrol lan hori egin behar ote duten”. Baina hor bagendun beti komunikabideekin mehatxu bat, zerbait gertatzen bazan Ordizian, hor zeudelako. Horregatik ez gendun erabaki hori hartu. Baina gero konturatu ginen beste herri batzuk agian modu malguago batean jokatu zutela, eta guk ere, nire ustez, agian hori egin behar genuela. Ze hor sortu zan pandemia osoan sortu ez zena: konflikto sozial bat, eta igual ekidin zitekeena.



Etendako harremanen itzalak: **Distantzia irautea**

Pandemiak pertsonen arteko harremanak bizi eta irudikatzeko moduetan aldaketa nabarmenak utzi zituen. Egun batetik bestera, kontaktu fisikoak eten ziren, elkarrekin egoteko modu berriak asmatu ziren eta maitasuna eta gertutasuna erakusteko adiera berriak sortu ziren. **la bi urtetan zehar, modu batean edo bestean, denok gureganatu genituen harremanetarako kode berri hauek.**

COVID-19aren inguruko larritasunak iraun zuen bitartean, herritarren arteko distantzia mantentzea norbere burua eta ingurukoak zaintzeko era eraginkorrena zen, eta honi lotutako arau eta gomendioak mantendu ziren. Baina pertsonen arteko distantzia honek albo kalteak izan zituen, eta garai honetan, bi urte luzeren ondoren, gero eta gehiago azaleratzen hasi ziren.

“

Sartu nintzen bukle baten, etxetik lanera, lanetik etxera, etxen ezin nun ezer egin eta bizitzako motibazioa kendu zidan.



“

Adineko gurasoak ditugunok ikusten dugu asko galdu dutela. la bi urte igaro dira, eta inori ez dizkigute itzuli. Eta desberdina da zuk nola bizi izan duzun edo haiek nola bizi izan duten.



Pertsonak izaki sozialak garen neurrian, gure biziraupenerako eta garapenerako elkarrekin egoteko premia daukagu. **Bizitzako esparru guztietan behar dugu inguruko gertutasuna eta babesa** (senide edo lagun artean, lanean, aisialdian...), eta lortzen ez dugunean, gure ongizate emozional eta afektiboan gabeziak izan ditzakegu.

Komunitatea eta herritartasuna ere herritarren arteko harreman eta elkar-ekintzei lotuta daude; izan ere, **bizilagun eta herrikideen arteko lotura esanguratsu gabe, ezin dugu komunitaterik edo babes-sarerik eraiki.** Honetaz jakitun, ahalegin asko egin ziren distantzia fisikoa distantzia sozial bihurtu ez zedin, batez ere hasieran (boluntario sarea, internet bitartezko harremanak mantentzea...), baina egitasmo hauek apalduz joan ziren, eta denbora luzez, elkarrekin fisikoki egoteko beharra azaleratuz joan zen.

“

Bulego batera joaten zinenean, ezin zenuen mahaian eskuak jarri ere. “Ez, ez, ez...”, esaten zizuten. Nekatuta bazeunden, ez zegoen ezer esertzeko, ezin zinen ezta apoiatzeko ere.



“

Konturatu nintzen bezero bat ez zela tabernara etortzen, behin baino gehiagotan deitu nion eta ez zuen atea zabaldu. Udaltzainei deitu nien, eta hilda zegoen.



Hasieran aipatu bezala, arrisku faktoreak zituzten herritarrak eta pertsona helduak izan ziren distantzia mantentzeari lotutako neurriak zorrotzen bete zituztenak. Denbora pasatu ahala, neurri batzuk malgutu ziren, baina **kontaktuak ekiditea erabat barneratuta zuten askok, eta horrek isolamendua edo nahi gabeko bakardadea eragin zuen.**

Adineko pertsonen errealitatearekin jarraituz, **pandemian adinkeriaz jokatu izana salatu dute batzuek:** batetik, haien bizi-baldintzak eta heriotzekiko axolagabe egon izana, eta bestetik, ez zaiela autonomiarik eman haien burua eta osasunarekiko erabakiak hartzeko, kutsatzea ekidin eta bakardadearen arteko muga lauso horretan bereziki.

Azkenik, aipatzekoa da **pandemiak izugarri azeleratu duela harreman telematikorako joera.** Izan ere, lehendik gazteek bereziki erabiltzen zuten interneta bizitzako esparru desberdinetan, baina pandemiak iraun bitartean, heldu askok ere tresna berriak ikasi eta haien egunerokotasunean txertatu dituzte. Honen ondorioak harremanetan agerikoak dira, baina baita aisialdian, kontsumo moduetan edota zerbitzu publikoetan ere, besteak beste.

“

Adineko pertsonak esaten zidaten: “Ez dira nire seme-alabak etortzen, eta nik ikusi nahi ditut”, “behean daude, baina ez diet entzuten”... Eta Gabonak iritsi eta jendea ezin zen elkartu, eta esaten zidaten: “Bakarrik nago”. Izugarria zen hori.



“

Nik ohitura daukat etxera heltzerakoan muxuak emateko. Eta bi urtetan ez ditut eman. Zenbat muxu galdu die? Zenbat besarkada? Niretzat hori oso esanguratsua da.



“

Nire bikotean amamak gogoratzen naiz esan zigula nahiago zula hil bisita gabe egon baino. Eta gogoratzen naiz esan zula joateko ostiralero, eta joaten ziren ilegal.



“

Gizarte zerbitzuetan ere ikusi dugu harremantzeko eretan aldaketa bat: pandemia aurretik beti aurrez aurre egiten genituen elkarrizketak, ze parte bat bada egoera delikatuaz hitz egitea; komunikazioa, ahozkoa eta ahozkoa ez dena ere. Pandemiarekin hitzorduak telefonozkoak ziren, eta itzuli ginen erabaki genun jendeari aukera uztea edo aurrez aurrekok ala telefonikoak. Eta badago jende bat aukeratzen duena telefonikoak egitea, saihesten du kontaktu fisikoa.



“

Ordiziako anbulategiak ondo funtzionatzen zuen. Gaur egun, Interneten ez dizu uzten aurrez aurreko hitzordua hartzen. Erizainarekin bai, eta telefonoz ere bai, baina aurrez aurrekoa ez.



“

Saltoki guztiak kaltetuak izan dira. Jendea online erosketetara ohitu zen. Pena da, herriak hil egiten baitira.



Gu ez gaude ados: Desadostasunak adieraztea

Pandemian gertatutakoa aztertzeko ezinbestekoak dira begirada aniztasuna eta disziplina artekotasuna. Biologia eta medikuntzatik, ulermenerako gakoak, gomendioak eta ahal bezala, egoera hobetzeko irtenbideak eskaintzen ziren. Hauei entzun ondoren, arduradun politikoek hartzen zituzten pandemiaren kudeaketari lotutako erabakiak. **Bi esparru hauetan, zientifikoa eta politikoa, ez ziren ahots bakarrak egon, ikuspegi asko eta oso desberdinak, batzuetan kontrajarriak, mantendu ziren.** Bi eremuen artean ikuspegi partekatua sortzea eta neurriak adostasunez hartzea ere ez zen erraza izan, eta arrakalak agerian geldituz joan ziren. Herritar batzuek interes politikoak mediku-ikuspegiaren gainetik jarri direla salatu dute, baina aldi berean, ezin da ahaztu, zientzia ez dela erabat neutroa eta eremu publikoari eragiten dion erabaki oro politikoa ere badela.



Nire enpresatik ezin naute bota, bazkide naizelako, baina ordutegi hobea eta diru gehiago ziurtatzen zidaten bi lan galdu ditut. Eta dena informazioa eramateagatik, nik ikusten nuena, eta esan didate errespetua galdu diedala.



SPC

Herritarrak ere eztabaida hauetan murgilduta egon ziren. Komunikabideetatik eta sare sozialetatik, informazioa emateaz gain, pandemia ulertzeko gakoak ere adierazten ziren, eta honetan ere, begirada aniztasuna handia zen. Batzuk, bertsio ofizial edo hegemonikotik kanpoko ikuspegiak defendatzeagatik, baztertuta sentitu ziren bitartean, beste batzuentzat, hori desinformazioan erortzea zen. Edozein kasutan, argi dago **pandemiari lotutako gai batzuk oso konplexuak izan direla, tabu bihurtu edota muturreko polarizazioak sortzeraino.**



Nork protestatu du? Oso gutxik. Eta protestatu dutenak ere, negazionistak, eta oso gaizki ikusita zeuden.



UPZ



Hasieran geunden dena onartzeko prest, baina hartu diren neurri batzuk, jendea etxetik ez atera ahal izatea, lana eta dena bertan behera gelditzen da, txertaketak... Eta bai, hor bazegon birus bat, baina, ostras, eraman gaituzte... mugara.



UPZ

Denbora igaro ahala, pandemiak baldintzatutako bizimoduarekin jarraitzea gero eta zailagoa bihurtu zen, eta honen ondorio negatiboak azaleratzen hasi ziren. **Herritarren artean kritikotasuna hazi egin zen, eta batzuentzat, neurri batzuk mantentzea zentzugabea zen.** Pandemiaren kudeaketa eredu ere sinesgarritasuna galtzen joan zen, eta kontrako iritziak areagotu egin ziren. Herritar askok adierazi dute ordurarte neurriak zintzoki bete bazituzten ere, pandemia amaieran, gogaitu egin zirela. Garai honetan protestak ere ugartu egin ziren, "covid pasaporte" eta haurren txertaketari lotuta bereziki.

“

Pasaporteen gaiarekin, gizarteak erreakzionatu egin zuen. Ez beharbada nahi izan genuen guztia, baina manifestazio handiak egin ziren. Elkarretaratzeak, pintadak egin ziren, kartelak jarri ziren...



“

Ondo atera zaien esperientzia bat izan dugu, eta espero dut berriro gertatuz gero, gizarteak lehenago erreakzionatzea.



Ordizia mailan, **“Stop pasaporte covid” izan zen publikoki pandemiarekiko desadostasuna erakutsi zuten kolektibo nagusia.** Pandemiaren kudeaketarekiko kontrakotasuna dute komunean, baina ikuspegi aniztasun batetik: osasuna ikuspegi integral batetik begiratzea defendatzen dute, pandemian hartutako neurrien inpaktu negatiboa salatzen dute, txertoen bitartez industria farmakologikoaren menpe erori izana argudiatzen dute, eta baita pandemia herritarrak kontrolatzeko mekanismo planifikatu bat izan dela ere.

“

Politikariei eskatzen diet ez daitezela belaunikatu industria farmazeutikoaren aurrean. Badirudi orain dena txertoekin konpontzen dela.



“

Okerrena horrek guztiak komunitatean sortu duen polaritatea da. Eta mesfidantza handiagoa sortu da gu babesten gaituztela diotenekiko.



Memoriaren zirrikituak: **Gertatutakoa ez dezagun ahaztu**

Pandemiaren amaiera irudikatzen zuen zeinu oro ilusio handiz jasotzen zuten herritarrek. Aurrera begira jartzeko borondatea gailendu zen, eta pandemia, gure historiako kapitulu ilun bezala, **ahalik eta bizkorren ahazteko saiakera kolektiboa egin zen.** Horrela bizi zuten behintzat herritar askok.

Baina hemen ere, denek ezin zuten berdin jarraitu aurrera. Pandemiak iraun zuen epealdia trauma kolektiboko garaia izan zen, denok bizi izanagatik, ez zuena arrasto berdina utzi denongan. Egoera bereziki bortitzak bizi izan zituztenak, dolu prozesuetan murgilduta zeudenak, eta haien bizitzan haustura esanguratsua esperimintatu zutenek, helduleku gutxiago zituzten irekitzen ari zen etapara egokitzeko eta ilusio berriei eusteko.

“

Badaude batzuk ezin dugula pagina pasatu. Iruditzen zait denok ari garela disimulatzen, ze hitz egiten det jendeakin eta danak esaten didate oso minduta daudela pandemiakin. Eta gero jendeak 'como si nada'. Eta esaten duzu: "Nakarrik ni nago gaizki?" Eta ez, ez da egie.



“

(Aipatzeko) geratu den gauza bat txertoaren ondorioena da, eta inork ez du hori aztertzeke azterketarik egin nahi: kontrako erreakzioak, iktusak...



Zentzu honetan, **pandemiaren hasieran nabarmendu ziren osasun langileekiko aitortza kolektibok ez zutela asko iraun** adierazi dute sektoreko langileek, eta pandemia amaiera aldean, lan baldintzak antzerakoak izanda ere, gizarteak nahiago izan zuela beste alde batera begiratu.

COVID-19aren ondorioz senideak galdu zituztenek ere gizarteak bizkorregi ahazten duela irizten dute, haientzat ez baitira oraindik dolu prozesuaren korapilo guztiak itxi. Bizipen hauek aintzat hartuz, **Ordiziako Udalak COVID-19aren ondorioz hildako pertsonen omenaldi publiko bat egin zien.** Harrera oso ona izan zuen eta parte hartutakoek eskertzatik bizi izan zuten.

Azkenik, pandemia garaian ezkutuan gelditu ziren minak azalarazteko borondatea ere aipatu behar da, bereziki, COVID-19ari lotutako neurriekin bat ez etortzeak sortutako bazterkeriari eta albo-kalteei dagokionez. Batetik, "covid pasaportea"ren bazterketa egoeran jasan zutenek, honen inguruan hausnarketa kolektiboa egitea aldarrikatzen dute, berriz gertatu ez dadin; eta bestetik, txertaketak izandako albo-kalteak eta ondorioen inguruko ikerketa zehatzagoak egitea ere eskatzen du ordiziarren sektore batek.

“

Ez dakit ekimena udaletik abiatu ote zen, baina eskerrak eman nahi ditut egin zitzaizen omenaldiagatik. Hildakoen omenezko estatua bat jarri zitzaizen egoitzan bertan. Oso ekitaldi polita eta hunkigarria izan zen, ni malkoarekin nengoen. Komunitatearen besarkada jasotzea bezala izan zen.





Azken gogoetak:

**Zer utzi digu agerian
pandemia honek?**

Osasunaz ari gara

Aurreikusi gabeko osasun krisi bati egin behar izan genion aurre, eta gizarte bezala, zein osasun egitura eta zerbitzuei dagokionez, ez geundela prest ikusi genuen. Osasuna, biziraupenerako eta ongizaterako elementu zentrala da; osasun gabe, ez dugu ezer. Europako herrialde demokratikoetan, **kalitatezko osasun unibertsala herritar orok duen eskubidea dela aitortzen da** eta erakunde publikoei dagokie eskubide hori bermatzea.

Osasun eskubide unibertsala ziurtatzea erakunde publikoen ardura izan arren, beti ez zaio ardura honi erantzuten. Ongizate estatuaren aterpean osasun sistema publiko eta unibertsalak indartu egin ziren, estatuko oinarrizko egitura izatera pasa ziren. Baina

azken urte hauetan, osasun sistema publikoak ahuldu eta zerbitzuak okertzen ari direla salatzen ari dira sektoreko langile, sindikatu zein zerbitzuotako erabiltzaileak. Horrela, **COVID-19ak lehendik hutsuneak zituen osasun sistema baten eztanda eragin zuen.**

Jendarte osasuntsua lehen mailako erronka izan beharko litzake, eta horretarako, **osasun egitura sendoak eta kalitatezko zerbitzu eskuragarriak behar ditugu, langileen lan baldintza duinak bermatuz.** Egunerokotasunean modu egokian funtzionatuko dutenak, eta salbuespen egoerei bizkor eta eraginkor erantzuteko gaitasuna dutenak. Hauxe dugu pandemia honek utzitako irakaspen nagusia.

Bestalde, osasunaz ari garenean, osasunaren determinatzaileez hitz egin behar dugu ezinbestean. Hauek agerian uzten dute osasuna oso lotuta dagoela norberaren baldintza sozio-ekonomiko, kultural eta ingurumenekoetara. **Hau da, bizi baldintzek, bizitza estiloek eta harreman sareek ere osasunean etengabeko eragina dutela,** alegia. Hortaz, osasun egitura sendoaz gain, gizarte egitura sendoak ere behar ditugu herritarren osasuna indartzeko, eta aldi berean, norbanakoen osasuna baloratzeko orduan, testuinguru konkretuak ere ulertu behar ditugu. Txosten honetan argi ikusi dugun moduan, osasuna edo segurtasunari lotutako neurri berdinek ez dituzte ondorio berdinak pertsona guztiengan, norbanakoen abiapuntu pertsonala eta testuingurua desberdina delako. Begirada honek herritarrei zuzendutako neurri unibertsalistak hartzea ekidin beharko luke, begirada espezifikoa

jarriz kolektibo bakoitzaren testuinguruetan eta beharretan, neurriok izango duten inpaktua ondo baloratzuz. Gainera, larrialdi momentuetan neurriak diseinatzen direnean, ikuspegi hegemonikoa gailentzeko arriskua dago, gizarteko bazterretan gelditzen diren kolektiboen beharrak are ezkutuago gelditzen direlarik.

Hari honetatik tiraka, osasuna ikuspegi holistikoago batetik begiratzeko beharraz ere ohartarazten dute ahots askok, MOEak **osasun integrala ongizate fisiko, emozional eta sozial egoera bezala definitzen** duela gogoraraziz. Pandemiaren larritasun eta bat-batekotasun testuinguruan, ikuspegi hau alboratu egin zen, eta osasun fisikoari emandako erabateko lehentasunak, gainontzeko alderdietan eragin negatiboak izan zituen, osasun egoera orokorra ahulduz.

Zaintza behar dugu

Zaintzak pertsonen behar fisiko, psikiko eta emozionalak bermatzeko lanak dira. Osasuna bezala, ezinbestekoak dira norbanakoen ongizaterako zein gizartearen funtzionamendurako. Eta **denok dugu era duinean zainduak izateko eskubidea.**

Ikuspegi historiko batetatik, emakumeek etxeetan, era pribatuan eta doan egindako lanak izan dira, eta horrek **zaintza lanen ikusgarritasun eza eta aitortza sozial falta** ekarri ditu. Gaur egun ere, emakumeek gizonen baino ordu gehiago eskaintzen dizkiete etxeko lanei eta pertsonen zaintzei, eta hori genero desberdintasun iturri nagusietako bat bihurtu da. Zaintza lanak profesionalizatu

diren kasuetan, prestigiorik gabe eta gaizki ordainduak izan dira, eta klase baxuko emakumeen lanpostu bihurtu dira, migrariak maila altu batean.

Zaintza sistemaren nolakotasuna ulertzeko, zaintzen diamantea erabili ohi da, zeinetan zaintza ardua hartzen duten lau elementu azaltzen diren: familia, estatua, merkatua eta komunitatea. **Gure gizartean sistema familiarista gailentzen da,** zaintza lanak senideen gain gelditzen direlako neurri handi batean; hauek erantzun ezin dutenean, zerbitzu publikoetara edota pribatuetara jotzeko joera dago.

Pandemiak bete-betean eragin zuen zaintza egituren dimentsio guztietan, eta zaintza krisiaren ertzak agerian utzi zituen. Batetik, elkarrekin bizi ez ziren senideak zaintzea asko zaildu zuen, eta horrek buruhauste eta erruduntasuna eragin zien zailzaile rola zuten herritarrei. Bestalde, nabarmen geratu zen, zaintzarako erakunde publikoak, bereziki adinekoentzako egoitzek, osasun egoera larriari aurre egiteko baliabide falta zutela, giza baliabideak zein baliabide materialak. Zentzu honetan, pandemiak adineko pertsonentzako egoitza eredu birpentsatzeko beharra ere jarri digu mahai gainean. Nola zahartu nahi dugun eta zein zaintza eredu bultzatu behar dugun eztabaidatzeko premia sortu da herritarrengan, kontutan izanik, zaintza lanak ezin direla gordin-gordinean merkatuaren eskutan utzi, eta lan hauek erregulatu, duindu eta aitortzeko mekanismoak landu behar direla, langileen lan baldintzak hobetzea lehentasunezkoa izanik.

Azkenik, **etxeko langile pribatuen egoera gordina azaleratu zuen pandemiak,** egun batetik bestera lan gabe gelditu baitziren asko. Zaintza katearen katebegi ahulenak izanik, krisiak gogor kolpatu zituen zaintzaile hauek, lehenik ere erabat prekariora eta ziurgabea zen errealitatea gordinduz.

Mugimendu feministak urteak daramatza **zaintzak egitura sozialaren erdigunera ekartzearen premiaz ohartarazten,** kalitatezko zaintza eskubidea bermatu eta zaintza lanak duintzea aldarrikatuz. Horretarako, ezinbestekoa dugu zaintza ereduari buruzko gizarte gogoeta sakona egitea, eta aldi berean, zaintza duina ziurtatzen duten egiturak indartzea eta eredu berriak arakatzea.

Non gelditzen dira adineko pertsonak?

Zentzu biomediko batean zahartzaroa bizitza osoan gorputzak jasaten duen higadura da, baina zahartzaroak badu sozialki eraikitako esanahi bat ere. Gure gizartean, **zahartzaroaren luzapena eta honi lotutako bizi kalitatearen hobekuntzak aldaketak ekarri ditu** zahartzaroa bizi eta irudikatzeko moduetan ere.

Azken urteetan zahartzaroaren iruditegia zabaldu bada ere, gure gizartean oraindik ere indarrean jarraitzen dute zahartzaroaren inguruko hainbat estereotipok. Erabat produktibista den jendarte batean, **adineko pertsonak gizarteari egin diezaioketen**

ekarpena ikusezin egiten da, ez zaio baliorik aitortzen. Pandemiaren testuinguruan hainbat momentutan bistaratu dira zahartzaroaren inguruko aurriritzi hauek, krisialdiaren momentu gordinenetan, adinekoak “sakrifikagarriak” izateraino.

Aurrez aipatu moduan, adineko pertsonen aniztasuna gero eta nabarmenagoa da, eta zahartzaroa garapen pertsonalerako eta proiektu berriak hasteko garai moduan ere ulertzen da. Zahartze Aktiboaren Paradigmatik, gainera, zahartzaroarekiko gobernantza eredu berri bat proposatzen da, lagunkoitasuna eta pertsonen parte-hartzea sustatuko dituen

ereduak bultzatuz. COVID-19aren kudeaketan, ordea, adineko pertsonak uniformizatzeko joera nagusitu zen, eta COVID-19az babestea bilatzen zuten neurrien bitartez, **adineko pertsonen haien buruarekiko, harremanekiko eta egunerokotasunari buruz erabakitzeke autonomia murriztu zitzaion.**

Bizitzaren azken fasea den neurrian, zahartzaroarekin batera, heriotzaren gaiari ere heldu behar diogu. Heriotza gai tabua da gure gizartean, eta zailtasunak ditugu aurrez aurre heriotzari buruz mintzatzeko, kolektiboki zein gertukoaren testuinguruan. Zahartu ahala, ordea, adineko pertsona batzuek nola hil nahi duten

adierazten dute, eta etxean eta akonpainatuta izan ohi dira eskaera nagusiak. Senideak borondate hau errespetatzen saiatzen dira, baina **COVID-19ak asko zaildu zuen hautatutako heriotzari edo heriotza duinari lotutako prozesuak egikaritzea.** Gizarte moduan azken agurraren garrantziari buruz gogoetatzeko beharra izan da pandemia honek utzitako beste gogoeta ekidinezin bat.

Komunitateari begira

COVID-19ak eragindako osasun eta gizarte krisiak komunitateari begira jarri gintuen. **Erantzun publiko-komunitarioa ezinbestekoa izan zen pandemia osoan**, batez ere lehen momentuetan.

Komunitatea aktibatu zen komunitatearen beharrei erantzuteko. Komunitate kontzeptua bere adiera zabalenean ulertu behar da, norbanako, herritar antolatu eta udala. Aktibatze komunitario hau bereziki zailtasun gehien zituztenen beharrak asetzeko edo egoera zaurgarrienean zeuden herritarrengana gerturatzeko eman zen. **Herritar ooren ongizatea bermatzeko ardura kolektiboa hartu zen.**

Lehen uneetan, jarri ziren martxan elkar-laguntza sareak, herri mailan, bizilagunen artean. **Sare hauek zuten potentzialitatea agerian geratu zen, gertutasunetik, elkarlanetik, arduratik elkar-zaintzeko erakutsi zuten ahalmena.** Baina, larrialdiaren gordinena igarota sareak desegiten hasi ziren. Beraz, krisialdiez haratago, sare komunitarioak bizirauteko eta denboran irauteko dituzten erronkak plazaratu dira. Zaintzaren dimentsio komunitarioa bultzatu nahi duen herri batentzat oso garrantzitsua da oinarri kolektibo sendo bat izatea, eta honetarako ezinbestean jorratu behar dira ekimen kolektibo horien helburu eta egiteko moduak; militantzia ulertzeko ereduak, ekarpenak egiteko moduak, intentsitateak, konpromiso mailak eta abar.

Pandemian boluntario sarearekin agerian geratu zen moduan, **herri zaintza eredu komunitario batek aliantza publiko-komunitario eskatzen du.** Boluntario sarearen kasuan, udalaren eta herritarren arteko lankidetzak artikulatu zen saretik, udalak, berari dagokion arduratik, boluntario sarearen eskutan jarri zituen bere baliabideak; teknikoak, ezagutzazkoak eta materialak (momentuan eskura zituenak behintzat). Erakunde publikoaren rola hori izan behar baita zaintza ekosistema komunitarioetan, ekosistema horiek sortu eta iraunarazteko baldintzak eskaintzea, bidea erraztea eta sostengatzea. Herritarrekin eta komunitatearekin etengabeko elkarrizketan.

Elkar-zaintzeko ardura kolektiboa hartuko duen Ordizia bat nahi bada, oinarrizkoa da herri eta auzo biziak izatea. Komunitate dinamikoak izatea. Horretarako herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak ezinbestekoak dira. Ildo honetatik, pandemian zehar herritarrek zaintzeko erakutsitako gaitasuna bideratu eta iraunkortu daiteke, merkataritza eta ostalariak daukaten herriaren eta herritarren ezagutza komunitatearen zerbitzura jarritz.

Bestalde, eta aurrez egin diren gogoeta guztiak osatzeko, garrantzitsua da aipatzea komunitatea ez dela soilik pertsonen multzo bat. **Komunitateak nortasun kolektibo bat izaten duela, elementu partekatuen inguruan biltzen dela** (ordiziarra, emakumea, gaztea...). Eta nortasun kolektibo hori indartu eta mantentzeko ezinbestekoak dira mundu sinbolikoari eta errituei lotutako adierazpen kolektiboak (jaiak, hiletak, harrera egunak, etab.) Pandemiaren eraginez bertan behera gelditu ziren adierazpen kolektibo hauek eta komunitatean utzi zuten hutsunea uka ezina izan zen. Adierazpen kolektibo hauek desagertzen direnean beraz, ezinbestekoa da erritual kolektibo berriak sortzea.

Amaitzeko, **komunitatea osatu eta sendo mantentzeko ezinbestekoa da enpatia kolektiboa lantzea.** Pandemiaren moduko krisialdian, neurri zorrotzak hartzen direnean, herritarren polarizazioa sortu dezaketen dinamikak sortzen dira. Elkarrizketa, elkar-entzutea eta elkarren tokian jartzea oztopatzen dute hauek. Jendartea polarizatzen denean, mesfidantza, epaia eta elkarrenganako kontrol soziala handitzen dira, eta honek enpatia ariketa kolektiboak zailtzen ditu, eta komunitateak ahuldu. Herri narratiba hau osatzeko prozesuan argi geratu da, elkar-entzuteko testuinguru seguruak sortzen ditugunean besteengandik gertuago sentitzen garela eta besteekin aritu eta eraikitzeo gaitasunak biderkatzen direla.

Herri narratiba hau osatzeko prozesuan argi geratu da, elkar-entzuteko testuinguru seguruak sortzen ditugunean, besteengandik gertuago sentitzen garela eta besteekin aritu eta eraikitzeo gaitasunak biderkatzen direla.



ordizia
bizi herria